

ELENA MARTINEZ RUBIO

Bidaia filosofikoak



Utriusque Vasconiae

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Elena Martinez Rubio
© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko otsaila
ISBN: 978-84-942531-3-3
Lege-gordailua: SS 75-2015
Azaleko irudia: Elena Martinez Rubio
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailak:
BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)
Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Aurkibidea

LEHEN ZATIA

Bidaide pentsalariak 5

HANNAH ARENDT: TOTALITARISMOARI AURRE EGIN

ZION PENTSAMENDUA 7

1. Jakintza-adarren arteko ibilbidea 7
2. Haize kontrako jarrera 10
3. Giza errealitatearen aniztasun politikoaz 12
4. Jaiokortasuna: kategoria filosofiko berria 15
5. Askatasuna zertan den sistema demokratikoetan 18

GÜNTHER ANDERS: ITXAROPENAK KOLDARKERIA

ESAN NAHI DU GAUR 23

1. Munduaren arazoetan murgilduriko filosofoa 23
2. Totalitarismoaren kontra 24
3. Gizaki zaharkituak 25
4. Ezerezaren edo hutsaren bizipena 27
5. Irudimena eta morala 28
6. Bakea ez da helburua, bidea baizik 29
7. Beldurraren analfabetoak 30

ERANSKINA:

NAHIKOA AL DA BORTXARIK GABEKO PROTESTA?

(Günther Andersen 1983ko testua, egileak alemanetik euskaratua) . . .	33
1. Saldukeria (Traizioa)	33
2. Berria den guztia, moralagoa omen da	34
3. Aski ote da gauzaki hilak hiltzea?	35
4. Hautsitako tabua	37

XXI. MENDEKO PENTSAMENDUAREN NORABIDEEZ:

OHITU OTE DIRA GURE BELARRIAK?	39
1. Beryteko Sanchoniatonen omenez	39
2. Zientzia modernoaren bideak	41
3. Doilor eta zitalei	43
4. Ilunpetako giltza	46

BIGARREN ZATIA

Bidaroa	51
HUTSA ZER DA?	53
ERBESTEAREN GARAITZEA	57
MOTORDUNEN HASIERA TXARRA	61
ALPEETAKO HIZKERA	67
DEMAGUN, MADEIRA	71
EZER EZ DAKIGU HELDU BERRI DEN NEGUAZ	75
”NI OHIAK”	79
PARADISUA HUTSEAN	83
SIGI-SAGA PATAGONIAN	87
VENEZIA, KOLKATA, DISNEY	91
ARGIAREN HARANEAN	95

LEHEN ZATIA
BIDAIDE PENTSALARIAK

Hannah Arendt: Totalitarismoari aurre egin zion pentsaera

1. Jakintza-adarren arteko ibilbidea

Hannah Arendtek (Hannover,1906-New York,1975) ez zuen inoiz bere burua filosofo hustzat jo, ez eta historialari edo politikaritzat ere, nahiz eta filosofia-ikasketak egin zituen Alemanian joan zen mendeko 20ko hamarkadan, besteak beste, Edmund Husserl, Martin Heidegger eta Karl Jasperekin¹. Arendt, jakintza-adarren arteko pentsaera baten alde zegoen, ikergai nagusi “giza aferen esparrua” deitu zion hura baitzuen. Arendten idazlanak ondoko hiru arlokook ditugu: filosofia, politika eta historia, ahaztu gabe hainbat osagarri soziologia, literatura eta psikologiatik ere hartu zuela. Arendtek, kazetaritza-lanetan jardun bazuen ere, gaurkotasunerako kontzeptu teorikoak bilatu eta garatu nahian egin zuen beti.

Bada, Arendtek historia, filosofia eta politikaren inguruko joan-etorri ugari egin zituen bizitzan zehar, ez zuelako inoiz bere burua filosofia akademikoaren barruan sailkatu nahi izan, baizik eta burujabetasun intelektualari eutsi eta funtzionariotzari loturik bizi ziren jakintsuengandik urruntzea xede zuelako. Ez zituen, inola ere, “ogibidezko pentsalariak” maitate (*Denker vom Gewerbe*, Kanten hitzetan). Arendtek askotan hitz egin zuen, ironiaz, filosofia akademikoko giroaren urriaz. Az-

ken batez, haren esanetan, baliotsuenak dira "inongo ideologiarekin ez boterearekin bat egiteko prest ez dauden horiek"², berdin izaki zein kultura-maila duten.

Arendtek ogibidezko pentsalariei zien mesfidantza, filosofoek historian zehar erakutsi duten tiranoenganako zaletasunak sorrarazia zen. Zalantzarik ez, 30eko hamarkadako gertaerek –nazismoa, gerra eta erbestea– etsipena ekarri zioten filosofoek elkar bizitza politikorako duten gaitasunari begira. Jarrera horretaz jabetzeko aski da Arendtek Heideggeri egin zion lehen kritika zorrotza irakurtzea, Bigarren Mundu Gerra bukatu berria zelarik³, edo Heideggerek 80 urte bete zueneko, 1969an idatzia. Arendtek azken testu horretan nabarmendu zuenez, tiraniarako joera –teoria mailan, behintzat– pentsalari handi ia-ia guztiengan topatzen da (Kanten salbuespenaz). Gogoan izan behar dugu Heideggerek –Arendten irakasle eta maitale ohiak– nazien alde jokatu zuela⁴.

Bestalde, Mendebaldeko filosofiaren tradizioa ez da sekula gai izan *politikotasunaren* kontzeptu argi bat osatzeko, Arendtek gogor kritikatu zuenez. Filosofoek gizakiei buruz pluralean hitz egin beharrean (esan nahi baita, giza aniztasuna aintzat hartu ordez), beti singularrean aritu ohi dira: alegia, norbakoaz. Ildo horretara, ekimen eta askatasunerako abagunetzat baino, fatalismo eta halabeharraren eremutzat jo ohi dute filosofoek giza errealitate anitza, berau ezjakite, atsekabe eta bidegabekeriaren agerbide den aldetik. Arlo horretantxe, hain zuzen, giza aferen arloan, kokatu behar da Arendtek filosofiari egindako ekarpena, bizitza politikoari Antzinateko greziarren artean zuen duintasuna itzultzea helburu izanik.

Filosofoek tiranoekin duten jokabidea ez zaio, alabaina, Arendten ikuspegitik, lehenbizikoen nortasun edo izaerari zor, ez eta garaian garaiko gorabeherei, baizik eta, oro har, adituen bereizgarri den *déformation professionnelle* delakoari. Lanbideak berekin dakarren ezagutzaren desitxuratzea, aldiz, filosofoen meritu nagusiari ere dago atxikia: hots, harridura edo mires-

mena oinarri hartuta, munduan etxe iraunkor bat eraikin nahiarri. Ez dezagun ahantz filosofiak (Aristoteleren eta Platonen ustez) munduaren gaineko harriduran (grekerazko *thaumadzein*) duela sorburu. Bai eginkizun zaila filosofoena; izan ere, beste nonbait bilatu behar da iraunkortasuna, Arendten aburuz, giza errealitateaz ari garelarik: non eta filosofoek, iheskorak direlakoan, gaitzetsi dituzten *giza ekintzetan* bertan. Oroimen kolektiboak ekintza laudagarriei bermatzen dien iraunkortasun mota bat da hori, Arendten pentsaera aztertu ahala ikusiko dugunez.

Esan beharra dago, hala eta guzti, *déformation professionnal* delakoaren ezaugarriak, historialari nahiz politikariengan ere aurkitzen direla. Lehenek, iraganari so bizi direlako, edonon amaierak besterik ez ikusteko joera dute, belaunaldi berri bakoitza hasiera berri bat dela ahaztuta; hau da, historialariak atzera begiratzen tematuta daude, errealitatea aldaezina bailitzan. Bigarrenek, ordea, aurrera begira bizi direlako, iragana bera ere gezurren bidez eraldatzeko joera dute, beren interesen zerbitzurako.

Nolanahi ere, Arendten iritziz, giza errealitatea da bizi garen “fenomenoen munduko” fenomenorik garrantzitsuenena. Ildo beretik, Kanten inperatibo kategorikoari jarraituz, mundua elkarrekin partekatzen dugu eta denona da bertan gertatzen denaren erantzukizuna. Beraz, gure jokatzeko orok gizadiarekiko ardura hartu behar du bere gain. Arendtek jorratu zituen hiru alorretara etorri: historiografiari oroimena lantzea eta zaintzea dagokio, askatasuna eta giza ekintzak etorkizunean bermatuko badira; filosofiari, berriz, espekulazio amaigabearen aritzea, beronek dogma eta emaitza borobiletatik askatu ahal izateko ariketa ezinbestekoa berekin dakarrelako; eta politikari, azkenik, judizioen eratzea dagokio, eratze horren bidez lortzen baitugu giza antolaketari eustea eta giza errealitatearen ulermen egokia izatea.

2. Haize kontrako jarrera

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta laster, totalitarismoaren salaketa antikomunismo huts bilakatu zen Mendebaldeko “mundu librean”. Geroago, hau da, 60ko hamarkadan, Gerra Hotzari ekin zitzaion. Nazismoa sistema totalitario baten adibide historikotzat hartzeko joera gailendu zen orduan, hura atzean utzitako jazoera bat izan balitz bezala: gertatutako izugarrikeriari aurrez aurre ez begiratzeko ihesbide bat. Gauzak horrela, nazismoaren sorrerarako arrazoiak gizartearen baitan bilatu beharrean, etsai izaten zirauen komunismoarekin konparaketak egiteko baino ez zen erabiltzen nazismoaren auzia. Ezagun denez, Berlingo harresia 1989an desagertu arte ez zitzaion amaiera eman orduko bi ideologiaren arteko sektarismoari: eskola marxistako pentsalarien eta “mundu askearen” aldekoen arteko banaketaz ari gara.

Hannah Arendtek, marxista ez bazen ere, haize kontra egin zuen hartan. Nazismoa eta estalinismoa sistema berdintsutzat jotzen zituen arren –menderatze-forma ziren aldetik, behinik behin–, uko egin zion nazien ankerkeriaren berdinketa erlatibizatzaileari. Sakon aztertu zituen, bai nazismoa ahalbide-tu zuen gizartea, bai totalitarismora eraman zuten baldintzak ere, batik bat, *The Origins of Totalitarianism* (“Totalitarismoaren jatorria”, 1951) izeneko idazlanean. Arendtek asmoa zuen nazismoaren sorrerako egiazko zergatiak argitzea, krimen haiek ez zirelako sekula ahaztu, ez eta errepikatu behar.

Talde naziak ezkutuan berrantolatzen hasi eta, batez ere, neonazien 80ko hamarkadako azaleratze aurretik, totalitarismoa XX. mendeko fenomeno nagusia zela esan zuen Arendtek ozenki, nazismoa ez zelako naziek gerra galdu ostean mundutik desagertu, ezta estalinismoa Stalinen aroaren bukaerarekin ere. Areago, totalitarismoak arrisku larria izaten jarraitzen du, ezintasun politikoa eta askatasunik eza, berez, masa-gizartearen funtsezko ezaugarriak direlako, berdin demokrazia izenekoe-

tan. Demokrazia hitza behin eta berriro errepikatuagatik ere, ezerk ez digu totalitarismoarekiko *immunizazioa* bermatzen. Jakina, Arendtek “masa” hitzaren erabilpen horrek ez du bizilagun-kopuruarekin zerikusirik, baizik eta patuak bertan behera utzitako populazioen arrozte eta deserrotzearekin.

Hari horretara, Arendtek ondoko hau zuen galdera edo kezkabide: nortzuk ote dira –eta nolakoak– ezohiko egoeretan, hots, inguruko gehien-gehienak bidegabe aritzen direnean, zuzentasunari eusten diotenak, bizitza jokoan jarriz eta bihotzaz jokatur? Erantzuna hauxe izan zen: korronte nagusitik kanpo beren kabuz judizioak egiteko gauza diren horiek izan ohi dira. Arendt ohartu zenez, jende arrunta izaten da hori, hein batean. Horrenbestez, bereizgarri bakar bat da nahikoa, Arendten iritziz, bidegabekeriari uko egiteko: gaizkile batekin bizitzeko prest ez egotea, hau da, gaizkile bat bizitza osorako lagun nahi ez izatea. Bestela esanda, gaiztakeria bat egiten duena ezin izango da, aurrerantzean, gaizkilearengandik banandu. Beti eraman behar izango du bere baitan solaskide edo bizikide izugarri hori.

Izan ere, marra batek bereizten ditu judizioak egiten dituztenak eta egiten ez dituztenak. Marra horrek, alabaina, gizarte mailako desberdintasunak zein kultura eta hezikuntzakoak zeharkatzen ditu. Zintzotasunez jokatu ahal izateko, bereziki garaturiko adimen baten beharrik ez dago; aitzitik, nork bere buruarekin isilean eta argiro hitz egiteko jarduera besterik ez da beharrezkoa, ia-ia ohitura bat ere izan daitekeen zerbait.

Nork bere buruarekiko aipatu elkarrizketa jarduera filosofiko guztiaren oinarrian dago. Platonek *Gorgias* izeneko dialogoan esan zuenez, “hobe da inorekin adostasunik ez izatea, nor bere buruarekin –bat izanik– ados ez izatea baino”⁵. Ildo horretatik, nork bere buruarekin egiten duen solasari esker, gogoetak ez dira zentzu komunetik urruntzen. Azken batez, gure buruarekin mintzatzeak besteak kontzientzian barnerratuak ditugula adierazten du, baita egia eta pentsaera kritikoari

atxikitzen gatzazkiola ere. Arendtek, “zentzu komuna” erabil-tzen duenean, guztiok dugun zentzua esan nahi du eta, era be-rean, guztiona den munduan guztion onerako jokatzeko sena. Hortaz, Arendtek aipatu barruko elkarrizketa errealitatearekin uztartzen du, artez, gogoeta eta teoriaren alorreko gaiekin lotu baino.

Baina Arendtek zioenez –nazismoaren garaian izandako eskarmentua gogoan–, litekeena da intelektualen artean joka-bide zintzoa eta zentzuzkoa duten horietako gutxi egotea, beroriek elite bat osatzen duten neurrian. Intelektualek beren burua engainatzeko zaletasuna dute, nola eta argudio asmo-tsuak erabiliz eta, behar izanez gero, datuak beren teorian indarka sartuz: koldarkeria mozorratzearen, inguru-mingu-ruka aritzen dira maiz. Arendtek behin eta berriz salatu zuen bezala, ergelkeriak masa-gizarteetako *intelligentsia* kutsatu du. Gizarteko beste taldeetan gertatu den antzera, intelektualen artean ere errealitatean orientatzeko ahalmena galdurik ageri zaigu totalitarismoaren aroan.

3. Giza errealitatearen aniztasun politikoaz

Hannah Arendtek *politikotasunaren* kontzeptu filosofiko berriak garatzea izan zuen xede, betiere, *vita activa* eta *vita con-templativaren* arteko tradiziozko banaketatik abiatuta. Berezi-ki, eta modu sistematikoan, *The Human Condition* (“Giza kondizioa”) izeneko liburuan ekin zion eginkizun horri.

Lehen-lehenik, Arendtek egin zituen definizioen arabe-ra, ondoko hauexek dira *vita activako* hiru giza jarduerak: *jokatzea*, *ekoiztea* eta *lan egitea*. Azken hau zer den hobeto ulertzeko, hobe genuke bizkaierazko “behar egitea” esatea, lan egitea halabeharreakin dagoelako uztartuta, behinik behin, Arendtek erabilitako zentzuan.

Ildo beretik, aipatu jarduera horien *iraunkortasuna* da Arendten hurrengo ikergaia: ekoizpena dela medio sortuta-

ko gauzatiek irauten dute gehien; lana edo beharreakin zeri-
rikusirik dutenek, berriz, berehalako kontsumorako dire-
nez, ez dute iraupen handirik; baina jokatzek, edo beronen
adierazpide nagusia den jendaurreko *ekintzak*, ez du inolako
iraupenik. Gainera, jokatzek ezinbestekoa izaten du beste-
ren lekukotza, lehendabizi atzemana, eta gero oroitua izate
aldera. Hortaz, ekintza, berez, hauskorra eta galkorra da. Era
berean, ekintzak *hitzarekin* lotu beharra du, derrigorrez; esan
nahi baita, kontakizun, istorio eta historiografiarekin. Giza-
banakoek hitzari esker lortzen dute, argiro lortu ere, ekintzen
izaera iheskorra gainditzea. Areago, Arendten iritziz, gizakiek
hilezkortasuna bera ere erdiets dezakete, hain zuzen, Antzina-
teko greziarren artean musa guztien ama zen *mnemosynearen*
edo “oroitzen” duen gogoeta mota bati esker.

Arendtek gizarte-antolaketaren ardaztat hartu zuen *ekin-
tza*. Ekintzaren iruntzia den *ulermena* (*vita contemplativa*koa
berau), halere, behar-beharrezkoa ere bada, ekintzak zentzurik
izango badu. Bi alderdi bateratzen dira hautu horretan: bate-
tik, ekintzailearena; bestetik, so dagoena edo ikuslearena. Biak
ala biak, gizaki guzti-guztien baitan daude. Horra hor, Pitago-
rasen parabola ospetsu bati aurre egiten dion Arendten jarrera.
Izan ere, Pitagorasek kontrakoa defendatu zuen bere parabola
ezagunean, esanez bizitza jaialdi baten antzekoa dela, non
batzuk zerbitu antzetzeko dauden eta besteak (filosofoak, jaki-
na) begira egoteko.

Arendtek, alta, ondoko honen aldarri egin zuen: “Jakintza
eta ekimena banandu direnetan, askatasunerako esparrua de-
sagertu da”⁶. Haren ustean, ez dago zertan onartu, ez jakin-
tsuen nagusigorik, ez herriaren abangoardiarik, eta ez partidu-
ko buruzagien atzetik doan “masa herrikoirik” ere. Arendten
ikuspegi horrek kontra egiten die Platonen Errepublikako ja-
kintsuen gaineko tesiei zein marxismotik eratorritako alderdi
politikoen gidaritzari buruzkoei ere.

Horren haritik, denon ardura ere bada errealitateko gertakizunak ulertzen saiatzea eta errealitateari buruzko judizioak egitea. Orobat, denoi dagokigu ekintzei hasiera ematea.

Ikusi dugu nola zedarritu zuen Arendtek errealitatea aldatzea helburu duen *giza ekintza politikoa*. Bada, Arendten ikuspegitik, giza munduak ehungintzaren antza dauka. Gizaki bakoitzaren jaiotza baino lehen taigabe aldatzen ari den harreman-sare bat dago hor, egon ere; sare horrek, gizabanakoaren bizialdia eta gero, bertan egoten jarraituko du. Ondorioz, giza aniztasuna ezin murriztuzkoa da, Arendten ustez, eta, bai errealitateari buruzko iritziak, bai guztiona den mundu baten eraikitzeari buruzkoak ere, heterogeneok bezain aberatsak dira. Hau da, mundu bat bera agertzen zaigu gizaki guztioi, nahiz eta bakoitzari era desberdinean agertu. Halabada, talde-lanean edo “auzolanean” ematen zaie hasiera ekintzei, ezinbestez. Ez dago isolaturik jokatzetik.

Bestalde, Arendtek gogora ekartzen digunez, iritzirik ez zuena ez zen inor greziarren artean; grekerazko *doxa* hitzak, iritziaz gain, ospea eta entzutea ere esan nahi zuen-eta. Horrek jendaurreko esparrura garamatza zuzenan: plazara, *agorara*, herritarren agertokira.

Testuinguru horretan, Sokratesen figura oso lagungarria da Arendten filosofia eta politikoa ulertzeko. Arendtek filosofoen eredu zuen Sokrates, politika eta filosofia batzeko gai izan zelako. Sokrates, hain zuzen, *poliseko* hiritarren hamaika aburu eremu pribatutik kanporatzen eta argitara ateratzen ahalgindu zen, hiria egiazkoago bihurtzeko asmoz. Sokratesek denon iritziek eraturako giza egia bat bilatzen zuen. Haren garaian, *polisek* barruti bat eskaintzen zien hiritarrei, non hilezkortasuna lor zezaketen beste hirikideen oroimenean geratuz.

Alabaina, behin filosofia eta politikaren arteko batasun hura hautsita Sokratesek jasandako heriotza-zigorragatik, hilezkortasunaren gaia filosofia eta politikaren arteko gatazka-iturri bihurtu zen. Platonen *Errepublikako* leizezuloan dagoen

filosofoak hilezkortasun mota jakin bat bilatzen du: alegia, egia bakar baten eta betierekotasunaren barne-esperientziatik datorrena. Egia bakar baten aipatu bizipen hori, aldiz, Arendt-en esanetan, beste esparru batekoa da, eta tokiz kanpo dago giza aferen munduan. Nolabait, mistizismo bakarzalearen espaziokoa dela esan dezakegu.

Argi dago Arendtek, Antzinaroko greziarrek bezalaxe, jendaurreko alorrean kokatu zituela bai askatasuna, bai, oro har, zoriona bera ere. Arendtek politika aurrekotzat jo zuen espazio pribatua, eta berau naturari zein beharrari zegokion askatasunik gabea zelako. “Pribatu” hitzaren jatorri etimologikoari ere erreparatu zion Arendtek: *pribazioa* gabezia da, hau da, argiaren gabezia. Ondorioz, eremu pribatua ilun eta hutsaltzat hartu zuen.

Nabarmendu beharra dago, jendaurreko esparrua, Arendt-en ustean, ez dela bakarrik Antzinaroko *agoran* topatzen, baiketik eta Aro Modernoko iraultza guztietan ere bai, noiz eta, jendearen ekimenaz, *sowjetak* eta asanbladak sortzen diren guztietan⁷.

Beraz, Arendtek guztiona den munduaren trinkotasuna lehenetsi zuen, baita ekintzazalea den pentsaera filosofiko bat goretsi ere. Askatasuna politikoa da, izan ere, Arendt-en definizioaren arabera. Areago: esan bezala, jendartean ekintzei hasiera emateko ahalmena da, askatasuna ezezik, zorientasuna ekar dezakeen bakarra.

4. Jaiokortasuna: kategoria filosofiko berria

Ikusi dugunez, Hannah Arendtek *vita activa* arloko “ekintza” kokatu zuen filosofia politikoaren erdigunean. Ekintzak, gorago esan bezala, mundua aldatzea eta eraberritzea du xede. Hala eta guzti, Arendt-en hitzetan, ekintza jakin baten handitasuna balioesteko irizpidea ezin liteke izan, inondik inora,

ekintza horrek lortutako arrakasta —edota jasandako porrota—, hasierako asmoei begira. Bada, gizakiek ez dituzte beren esku izaten tartean egoten diren eragile guztiak. Eta ekintza bat, betiere ikuspegi utilitaristatik urrun, goraipagarria izan daiteke egileen hasierako asmoek huts egin arren. Baina nola funtsatu zuen Arendtek filosofikoki ekintza politikoaren zerizana edo muina? “Jaiokortasunaren” kategoria ontologikora jo zuen tesuinguru horretan.

Hari horretara, nabarmena da San Agustinen filosofiaren eragina Arendten pentsaeran. Jaiokortasuna (*Gebürtlichkeit*, alemanez; *natality*, ingelesez) Arendtek sortu zuen terminoa da, San Agustinen *hasieraren* gaineko hausnarketa batean errotuz: “Initium ut esset, creatus est homo”, esan zuen San Agustinek (“Hasierarik izan dadin sortua da gizakia”)⁸. Zalantzarik gabe, haur jaio berriaren eta aro baten hasierarena kristau mitologiako garrantzi handiko gaiak dira. Arendtek bere egin zituen gai horiek, kristaua ez bazen ere.

Bestalde, Arendtek filosofoen arrangura sortu ohi duen “hilkortasunari” kontrajarri zion jaiokortasuna. Eta ondoko galdera hau plazaratu zuen: zergatik eman ote zaio lehentasuna heriotzari, filosofiaren tradizioaren baitan, eta ez jaiotzari? Hain zuzen, heriotzaren ordua gertu duten jakintsu eskarmentudunen jarrera ezkorra gailendu delako. Arendti, ostera, jaiotzea zitzaion axolago, gizakien hiltzea baino. Beraz, zuzenago eta egokiago zeritzon, gizakiak hilkorrek, “jaiokorrek” direla esateari.

Bada, gizabanakoen munduratzea askatasunaren adierazgarri da, Arendten iritziz, munduratze hori bat-batekoa eta ustekabekoa ezezik, igarrezina eta, ondorioz, librea ere bade-lako. Baina filosofo gehienek ez dute askatasuna maite, ausazko osagaien beldur baitira. (Gauza bera esan zuen Arendtek historialarien gainean ere.) Pentsalariak nahiago izaten dituzte aurreikus daitezkeen fenomenoak, edota kausa guztiak agortu arte “esplikatu” daitezkeen horiek. Berriz ere irten zaigu bidera

Arendten askatasunaren alde eta determinismoaren aurkako jarrera argia⁹.

Ildo horretara, Arendtek ondorioztatu zuenez, giza jaiotza denborazko *continuum* delakoa apurtzen duen gertaera bat da. Halaber, gizakiak printzipioa eta hasiera dira, aldi batera. Izan ere, grekeraz nahiz latinez hitz bakar bat zegoen printzipioa eta hasiera adierazteko: *arché* eta *principium*, hurrenez hurren. Aipatu bi termino horiek, hots, printzipioa eta hasiera, garaikideak dira: hasierarekin batera, printzipioa ere agertzen da-eta. Arendten filosofian, “printzipioak euskarazko “hatsarreakin” du zerikusi handia, hatsarrea jatorria ere badelako.

Gauzak horrela, bazterturik geratzen da zoriak hasiera orori eransten dion nahiera-kutsua edo kasualitate-izaera. Eta ez dugu zertan inora jo eredu (edo “absolutu”) baten bila, “printzipioa” zuzenetsi edo justifikatzeko. Gizabanakoei bide berriak urratzea dagokie, berez, beraiek ere hatsarre bat direlako, jaiotza dela bide.

Hortaz, gizakiak jatorria eta hatsarrea dira, beraiek lehenetik dagoen mundu batean ezarritako hasiera berri bat diren heinean. Eta, hasiera bat izanik, gizakiek hasierarik egiteko gaitasuna dute, nola eta ekintzen bitartez. Beste era batera esanda, giza izaerari datxekio prozesu berriei ekiteko ahalmena.

Askatasun politikoaren gaira itzuliz, gizakiak diren hasiera berria askatasun politikoaren “baldintza existentziala” da, Arendten ustean. Gizakiek munduaren aldaketarako parada gorpuzten dute, zilegitasun osoz. Arendt bat zetorren horretan Platonek esandakoarekin: “Hasiera jainkoizun baten antzekoa da, giza munduan erroturiko gauza guztiak bere babespean hartzen baititu”¹⁰. Laburbilduz, esango dugu jaiotza gertaera biologiko hutsa izateari uzten diola Arendten filosofian, eta ekintza oinarritzen den printzipio bihurtzen dela.

Gaian sakonduz, zein zentzutan zioen Arendtek mundua “aldatzea” behar-beharrezkoa dela? Hobe genuke, “zaharberri-

tzea” erabiliko bagenu, munduak gizakiak bezain hilkorra izateko arriskua baitu, jaiokorrak bai, baina hilkorrak ere badiren gizakiek egina denez gero. Gizakiak, mundua berrantolatu eta berregiteari lotu behar zaizkio giza munduaren gainbeherari aurrea hartzeko, hain zuzen ere, jatorritik hurbilago dauden munduratu berriei lehen hitza emanez. Horrexegatik, Arendt-en ikuspegitik, indoktrinazio oro da gaitzesgarria, heldu berrien ekarpenari eragozten diolako.

Azkenik, Arendtek, ekimena ezezik, judizioak egiteko ahalmena ere etorrarazi zuen jaiokortasunetik. Haren ustez, norbanako guztiek daramate barruan judizio berrien iturburua izateko adina etorki. Iturburu horri zor diote beren kabuz zer egin behar den erabakitzeke ahalmena, baita ezohiko egoeretan ere; esan nahi baita, gizarteko arau finkatuek huts egiten dutenetan, totalitarismoan gertatzen den legez. Hala bada, jaiokortasunaz dihardugularik, kontraesan bat ageri zaigu: Arendtek dioenez, jaiotzea gertakizun libre bat da, baina jaiotzen denak ez du jaiotza hautatzerik. Arazo paradoxiko honi irtenbiderik bilatu nahian, “bigarren jaiotzaz” mintzo izan zen Arendt, sujeta, berriz ere, Kanten munduarekiko erantzunkizunera ekarriz: aipatu bigarren jaiotza horren araberak, norberak, oraingoan askatasun osoz, “lehen jaiotza” berresteko hautabidea dauka, nola eta munduarekiko ardura bere gain hartuz.

5. Askatasuna zertan den sistema demokratikoetan

Testu honen mugengatik, ezin ditzakegu Arendten gogoeta teorikoen zenbait alderdi aipatu ere egin. Bada, gorago aurkeztutako ideiez gain, politika, historia eta filosofiari dagozkien gogoeta anitz aurkitzen dira Arendtek gaurkotasunari eskainitako hamaika artikulutan barreiatuak. Arendtek utzi

zizkigun idazkiak asko eta asko dira, liburuak nahiz aldizkarietan argitaratutakoak, nekaezin aritu baitzen lanean. Hil zen egunean idazmakinean sartuta utzi zuen paper-orri bat da lanerako grina horren lekuko. Orri horrek “Judizioa” zuen goiburua eta sarrera hasi berri bat zen, hain zuzen, *Das Leben des Geistes* (“Gogoaren bizitza”, *vita contemplativaz* berau) izeneko trilogiaren hirugarren atarikoak. Heriotzak, lehen pasartearen zirriborroa idazten ari zelarik eraman zuen Arendt¹¹.

Mugak muga, Arendten pentsaeraren bidean barrena aurrera egin eta askatasunaren auzia gaur zertan den aztertuko dugu ondoren; zaila egiten baita Arendtek idatzitakoa, nolabait esatearren, “denboraz kanpo” irakurtzea.

Arendtek bete-betean asmatu zuen bera hil eta hurrengo hamarkadetako zenbait fenomenoren agerpena, etorkizuna osoro igarkaitza dela uste izan arren: besteak beste, atentatu politikoaren izaera-aldaketa (horiek gero eta diskriminatugabeagoak izango zirela aurreikusi zuen), herrialde txikien autodeterminaziorako aukeren gorakada, eta inperioko masa-gizartearen despolitizazioaren areagotzea. Horrezaz gain, Arendtek ohar-tarazi zigun orainaldia, azkar-azkar, historia bihurtzen dela “demokrazia” izena daramaten sistema politikoetan; era berean, iragana berehala hil eta bazterturik suertatzen da, jendea beti programatutako etorkizunaren aiduru bizi delarik. Arendten hitzetan, bizitza bera geroratze huts bihurtzen da horrela.

Ildo beretik, Arendten iritziz, masa-gizarteetako kideak etengabeko salbuespen-egoeran bizi dira, bai beren buruaz, bai giza munduaz arrotzua. Eta populazioa bizitza pribatua murgildurik bizi da, antolaketa politikoaz axolarik izan gabe. Oro har, soziologoek ikertzen dituzten *portaerek* hartu dute ekintza politikoaren tokia, finkatutako botereak portaera horiek, masa-hedabideak eta beldurra baliatuz, bideratzen dituen bitartean.

Gainerakoan, Arendten ustez, munduko bizilagunak “erabili eta botakoak” dira, kontsumo-produktuen antzera. Egoera

horri nuklear mehatxu latza gehitu behar zaio ere. Gure lan honen atarikoan esan bezala, Arendtek egin zituen analisisie jarraituz, demokrazia hauek totalitarismo kutsuko elementuez beteak dira.

Guztiarekin ere, Arendtek ez zuen inongo etsipen edo eszeptizismorik erakutsi gizakiek errealitatea aldatzeko duten ahalmenari begira. 1970eko elkarrizketa batean ondoko galdera hau egin zioten Arendti: ea beste aukerabiderik bururatzten ote zitzaion, materialismo historikoaren jarraitzaileek aurreikusitako “sozialismoa ala basakeria” alternatibaz gain. Honelaxe erantzun zuen:

“Nik ez dut historian halako alternatibarik ikusten (...) Utz dezagun alde batera gizadiaren “bilakaera historikoa”, (...) gertakorrena hauxe da-eta: historiak alternatiba horiekin bat ez datorren beste alde batera jotzea. Gure itxaropen bakarra, historiak gu ustekabeen harrapatzean datza”¹².

Egia zioen Arendtek. Adibide bat jartzearren, Ekialdeko Blokearen bukaera, nork iragarri zuen? Inor gutxi izan zen gai zetozen aldaketez aurretik ohartarazteko, ez, behinik-behin, gertatu ziren moduan.

Hortaz, Arendtek ez zuen sinesten giza historiak berak norabiderik duenik. Garaian garaiko giza bizialdien esanahi politikoa eta filosofikoa zituen ardura, inolako mesianismorik gabe. Arendtek ez zuen uste gizadiaren etorkizuna aurreikus eta kalkula daitekeenik, ekintzen jatorrian dagoen giza berez-kotasuna edo espontaneitatea guztiz suntsitu ezean. Ondorioz, Arendtek gorago aipatu elkarrizketan adierazi bezala, gure itxaropenaren berme bakarra “jakin ezin dezakegun horixe” da; besterik ez dugu-eta. Paul Ricoeur-ek “etsigaitza” deitu zion Arendten pentsaerari, arrazoi osoz¹³.

Horiek horrela, Arendten jaiokortasunaren printzipiora joko dugu, azkenik, masa-gizartean bilakabidean bertan “arrakalarik” bilatzeko. Halako zirrikitu bat da, zalantzarik gabe,

nazio txikiek autodeterminazioaren bitartez eragindako aldaketa. Arendten iritzi, jaiokortasunari buruz ari ginela erakutsi bezala, hasiera oro da bide ibilgarri berri eta zilegi baten adierazpide. Arendtek pozgarri zeritzen, iritzi ere, esparru politiko berrien sorrera eta fundazioei. Halaber, Arendtek behar-beharrezkotzat jotzen zuen egitura politiko berrien eratzea eta esperimentatzea, bai estatu nazionalen porrota atzean uzteko, bai bizitza politikoari duintasuna itzuli eta totalitarismoaren arriskuari buru egiteko.

- ¹ Hannah Arendt Martin Heideggeren ikasle izan zen Marburgon, eta, ondoren, Edmund Husserlarena Friburgon. Tesia, berriz, Karl Jaspersen zuzendaritzapean egin zuen Heidelbergean, San Agustinen maitasun-kontzeptuari buruz.
- ² Hannah Arendt-Karl Jaspers, *Briefwechsel* (“Eskutitzak”), Piper Argitaletxea. Munich, 1987. (Lotte Kohler eta Hans Saner editoreak). 131 zenbakidun eskutitza.
- ³ Hannah Arendt, “Was ist Existenz-philosophie?” *in: Sechs Essays*. Stenberger. Heidelberg, 1948.
- ⁴ Hannah Arendt, “Martin Heidegger ist achtzig Jahre alt” *in: Menschen in finsternen Zeiten*. Piper Argitaletxea. Munich, 1989.
- ⁵ Platonen *Gorgias* eta barruko dialogoari buruz ikus: Hannah Arendt, “Philosophy and Politics” *in: Social Research*. 57 alea. 1 zenbakia. 1990. 73-103 orr.
- ⁶ Hannah Arendt, *Über die Revolution*. Piper Argitaletxea. Munich, 1986. Ikus baita ere “Rosa Luxemburg” izeneko saiakera *in: Menschen in finsternen Zeiten*. Piper Argitaletxea. Munich, 1989.
- ⁷ Hannah Arendt, *Über die Revolution*. Piper Argitaletxea. Munich, 1986. Ikus baita ere “Rosa Luxemburg” izeneko saiakera *in: Menschen in finsternen Zeiten*. Piper Argitaletxea. Munich, 1989.
- ⁸ Arendtek, behin eta berriz ekartzen dizkigu gogora San Agustinen hitzok.
- ⁹ Esplikatzearaz *versus* ulertzeaz ari garela, ikus G.H. von Wrighten idazlan klasikoa, *Explanation and Understanding*, 1971.
- ¹⁰ Platon, *Legeak* (775).
- ¹¹ Trilogiaren azken atala hil eta gero kaleratu zen, Arendten Kanti buruzko eskolak eta Arendtek utzitako beste oharrak erabiliz, ezagun zelako Arendtek beraietan oinarritzeko asmoa zuela.
- ¹² “Interview mit Hannah Arendt”, Adelbert Reif-ek egindako elkarrizketa *in: Hannah Arendt, Macht und Gewalt*. Piper Argitaletxea. Munich 1987. 118 orr.
- ¹³ Paul Ricoeur, “De la filosofía a lo político. Trayectoria del pensamiento de Hannah Arendt” *in: Debats*. 37 zbk. 1991ko iraila. 5 orr.

Günther Anders: Itxaropenak koldarkeria esan nahi du gaur

1. Munduaren arazoetan murgilduriko filosofoa

Günther Andersek ez zuen eskuratu, bizi zen artean, pentsalari eta poeta bezala merezia zuen ospea, nahiz eta XX. mendeko beste pentsalari handiengan, Adorno eta Sartrengan esaterako, eragina izan zuen. Adibidez, 60ko hamarkadan Vietnamgo gerraren kontrako Russell Tribunaleko kide izateak edo 80koan uklearren kontrako borrokan parte hartzeak, Anders aski ezagun egin bazuten ere, haren pentsamendu eta haren bizitzaren beste alderdi batzuk, ordea, ezezagun samar izaten jarraitu zuten. Seguruenik, beti bide nagusietatik kanpo pentsatu eta idatzi izan zuelako. Bestalde, Anders, oso pentsalari polifazetikoa izateaz gain, bidegabekeriaren salatzaile ausarta eta gatazkatsua izan zen, arlo desberdinetan. Eguneroko borrokekin lotua zegoen jokabide hori zela-eta, zenbait pentsalarik “praxira” ihes egitea aurpegiratu zioten Andersi, filosofoen eginbehar bakarra omen den “teorizatze hutsetik” urruntzogatik. Aipatu joera, antza, huts barkaezin bat da filosofo batengan; hala eta guztiz, huts hori barkagarriagoa izan ohi da, baldin eta “praxi” horrek beste alde batera jotzen badu, hots, boterearen aldera.

Hans Magnus Enzensberger-ek 1958an ongi adierazi zuen bezala, Andersek ez zuen, zorionez, sekula atzera egin bere zereginetan, nahiz eta batzuek, arrazoirik gabe, Andersi “kazetarien mailara” jaitea leporatu zioten¹. Izan ere, Andersek sinesten zuenez, hitz egitea filosofoei dagokien eskubidea da, baina filosofoek hitz egiteko eskubidea galtzen dute –hain zuzen, duintasun ezagatik– baldin eta beren garaiko oinazeaz arduratzeak sinesgarritasuna galtzea badakar.

Andersek bizitza osoan eutsi zion aipatu jokabide horri. Beti jo izan zuen ezmoralizat klase akademikoarentzat soilik idaztea, hau da, okinak ogia soilik beste okinentzat egingo balu bezain ezmoral eta zentzugabetzat. Hala bada, Andersek boterearen txantajea borrokatzeko prest dagoen edonori zuzentzen zizkion bere testuak eta ahaleginak, gainontzeko filosofoak barne. Horrezaz gain, hizkuntza ez delako inoiz errugabea, etengabe aztertu ohi zituen eztabaida eta idazkietan erabiltzen diren terminuak.

Andersek sari ugari jaso zituen egindako lanarengatik²; beste sari batzuei, berriz, uko egin zien, boterea bere izena jarrera bat zuritzeko baliatzen ari zela susmoa izan zuen gutzietan, alegia. Hortaz, Andersek ez zien inoiz bizkarra eman munduko gertakizunei. Bizitzaren azken urteetan ere –laurogeita hamar urtetik gora bazuen ere– energia nuklearrari aurre egiteko deia egiten segitu zuen. Izan ere, Andersek hil ala biziko irizten zion borroka horri.

2. Totalitarismoaren kontra

Günther Anders Wroklawen (Polonia) jaio zen 1902an, judu aleman asimilatuen familia baten baitan. Judu izatearen kontzientzia ez zien etxekoei zor, gaztaroko lagun bati baizik, Ekialdeko etorkinen semea hau eta, beraz, “bigarren mailako” judua, ongi bizi ziren Alemaniako juduen begietan behinik

behin. Identitate-gatazkak min handia sorrarazi zion Andersi, gazte-gaztetatik. Laster ulertu zuen integrazioa bilatu eta bere burua ukatzen duena babesik gabeko egoera arriskutsu eta tragiko batean bizi dela. Ez nortasunaren definizioa, ez norberaren patua, ez dira sekula besteren esku utzi behar.

Andersek filosofia ikasteari ekin zion 1919an, Freiburgon. Bertan, Hannah Arendt ezagutu zuen, geroago emazte izango zuena. Halere, Andersek ezin zion eutsi ibilbide akademikoari, tesia Husserlekin burutu ondoren, ez zuelako lortu unibertsitatean sartzea. Batetik, naziak gora egiten hasiak ziren orduan; bestetik, Andersek musikaren soziologia hartu zuen ikergai, nahiz eta Adornok ere, une berean, gai horri buruz ikertzen ziharduen.

Azkenik, Anders kazetari-lanetan hasi zen 1930. urtean, Berlinen, Brechten laguntzaz. Garai hartan erabaki zuen Andersek moralaren ikuspegitik garrantzirik ez zuen guztia baztertzea, faxismo eta gerraren kontrako idazketa didaktikoan buru belarriz murgiltzeko. Andersen autoritarismoaren kontrako kontakizun, alegia, eta artikulu ugari urte horietakoak dira.

3. Gizaki zaharkituak

1933an Alemaniatik Parisera ihes egin zuen Andersek eta, ondoren, Estatu Batuetara emigratu. Estatu Batuetan mota guztietako lanak egin behar izan zituen aurrera egin ahal izateko. Lan munduko bizipen horiek *american way of life* delako “bizimodu demokratikoa” gertutik ezagutzeko aukera eman zioten Andersi, eta oso onuragarriak izan ziren teknikari buruzko haren filosofiaren sorreran. Ildo beretik, Andersek espe-rientzia horietan oinarritu zuen bere filosofia-liburu nagusia: *Die Antiquiertheit des Menschen* (1956), (“Gizakiaren izaera zaharkitua”). Andersen iritziz, gizakiok teknikak baztertutako

izaki zaharkitu eta akasdunak besterik ez gara gaur, teknikak –subjektu bihurtu ondoren– kontzientziaren “ni”ari lekua kendu dionez gero. Andersek, gainera, betiere Mendebaldeko tradizio filosofikotik urrun, gizakia beste izaki guztien mailakotzat jo zuen, unibertsoaren erdigunean kokatu ordez. Are gehiago, gizakiok ongia eta gaizkiaren artean aukeratzeko dugun “askatasun morala” abantailatzat baino, beste izakiekiko desabantailatzat hartu zuen. Gogoeta horrek Sartreren “askatasunerako kondenaren” tesian izan zuen eragina, hain zuzen, Andersen “Über die Weltfremdheit des Menschen”, (1930), izeneko artikulua zela bide (Andersek lehendabizi frantsesez argitaratu zuen testu hori, Parisen, “Pathologie de la Liberté” izenburupean).

Behin Estatu Batuetako erbestean, Anders beste europar pentsalari batzuekin elkartu zen, besteak beste, Marcuse, Horkheimer, Adorno, Döblin eta Brechtekin, baina *outsider* izaten jarraitu zuen eskola-filosofoen *milieu* hartan, ez zegoe-lako prest inongo alderdiren esanari jarraitzeko, ezta korronte filosofikoen kide edo jarraitzailea izateko ere. Zalantzarik gabe, “jakintsuen” elkarrizketek ez zuten Anders liluratzen, ez eta karrera akademikoak asetzen ere.

Horrezaz gain, Adornok Heideggeren zalea izatea leporatu zion Andersi. Halere, Anders, Heideggeren ikaslea izan bazen ere Freiburgon, inoiz ez zen haren jarraitzaile izan, 1948ko “On the Pseudoconcreteness of Heidegger’s Philosophy” izeneko testuan argi utzi zuenez. Nolanahi ere, Adornok berak geroago aitortu zuen bere “*Negative Dialektik*” izeneko idazlanean Andersen testu horren eragin nabarmena dagoela.

Hari horretara, Andersek faxismoaren kontrako borroka zuen kezkabide nagusi. Izan ere, haren hitzetan, estatu demokratikoetako “gehiengo” batzuk ez dira Hitleri botoa eman zioten gehiengo beldurgarriak baino demokraziaren isla hobea; areago, kontuan hartzen badugu, masa-hedabideen garaian, gehiengoak “ekoiztu” ere egiten direla, kontsumorako beste

ekoizkinak bezalaxe. Gauzak horrela, perspektibarik gabeko mundu batean bizi gara, isolatu bezain masifikaturik. Halako populazioa totalitarismoarekin kolaboratzeko prest egoten da, beronek sasi-elkartasun bat sortzeko gai delako, betiere etsai baten kontra, juduak kasu. Ezaugarri horri eskubideak kendu zaizkien biktimen alienazioa gehitu behar zaio ere.

4. Ezerezaren edo hutsaren bizipena

Edonola ere, 1945ko Abuztuaren 6a bihurtu zen laster, argi bihurtu ere, Andersen pentsaeera nahiz ekintza guztien ardatz. Bomba atomikoek Hiroshima eta Nagasakin orduan eragin zutenek, giza irudimena gainditu zuen, Andersen ustez. Bada, “ezerezaren esperientzia” hark erakutsi zuen gizadiak bere buruari lurratik desagerrarazteko ahalmena duela.

Andersen iritiz, bonbaren mehatxupeko giza existentzia, arazo filosofikotzat hartuta, *terra incognita* bat da. Hasteko, munduaren iraupena ez da izan, ordutik aurrera, esan gabe doan zerbait filosofiaren arloan, aurreko filosofo guztientzat zen bezala. Zentzu horretan, ezinezkoa da esatea pentsamenduaren garai berri baten atarian gaudela egun, ez dakigulako etorkizunik izango den ala ez. Beraz, Andersek funtsezkoago jotzen zuen etorkizunaren alde borrokatzea, teoriak garatzea baino. Jakina, ideia horrek filosofia bera erlatibizatzen du; baina, azken batez, munduak berak izan behar du lehentasuna, baita filosofoentzat ere, astronomoentzat zeruko fenomenoek eta planetek –ez astronomiak berak– lehentasuna duten antzera.

1950ean, Europara itzuli zen Anders, MaCarthyk hasitako jazarpen politikoa zela-eta: “sorginen ehiza” deituriko garaiaz ari gara. Andersek Austria aukeratu zuen bizitzeko, Alemaniaren Errepublika Demokratikoaren erreialismo sozialistak ez zuelako erakartzen, ez eta Konrad Adenauerren Alemaniak. Bada, Mendebaldeko Alemanian ez zitzairen harrera onik egi-

ten erbestetik itzultzen zirenei, erantzukizunari buruzko eztabaida suspertuko zutelakoan eta bertan geratutakoei oroimen ezatseginak ekarri. Andersek ongi jabetu zen nola hirietan izandako bonbardaketak nahiz jasandako goseak, zegoenez, natura-katastrofearen kutsua hartua zuten gizartean. Era berean, Anders konturatu zen krimenen ondorio izugarriek kriminalak ahaztarazten hasiak zirela, jendeak ez zuelako zergatiei buruz gogoetarik egin nahi.

Gauzak horrela, Andersek uko egin zion Ernst Blochek Alemaniako Unibertsitatean eskaini zion irakasle-lana, bere filosofia giro hartakoa ez zelako ustean. Eta Anders, austriar irratian hasi zen lanean saio didaktikoen egile gisa, hain zuzen, maite zuen “begi-zabaltzaile” baten lanean jarraitu ahal izateko.

5. Irudimena eta moralak

50. hamarkadako azken urteetan, Anders harremanetan jarri zen Claude Eatherly, bonba atomikoa Hiroshima gainera bota zuen hegazkinaren pilotuarekin. Eatherly psikologikoki gaizki zegoen eta bere burua hiltzen saiatua zen errudun sentitzen zelako. Estatu Batuetako militarrek Eatherleyk zeuzkan arazoak ezkututzen ahalegindu ziren, ez zutelako nahi hark zeukan heroi nazionalaren irudia hautsita suertatzea. Alabaina, ez zuten horretan arrakastarik izan. Bestalde, Eichmann eta beste nazi batzuen kontrako prozesuak ari ziren gertatzen orduan. Andersek gertaera horiei aztertzeari ekin zion, betiere erruaren ikuspegitik. Andersek ondorioztatu zuenez, Eichmann, Eatherley ez bezala, ez zen ezertaz damutu; epaiketan, egin beharra bete baino ez zuela egin aldarrikatu zuen bere buruaren alde egiteko. Ildo horretara, Andersek nabarmendu zuen Eichmann “bulegoko kriminala” zela, hau da, jokaera gaiztoaren ondorioak irudikatzeko gauza ere ez den norbait. Eatherley pilotuak, ordea, “gaizkiaren errugabetasuna” gorpuzten zuen,

Andersen iritziz. Erruaren gaiari buruzko liburu bat argitaratu zuen Andersek 1961ean, *Off limits für das Gewissen* (“*Off limits* kontzientziarako”); liburua, hamazazpi hizkuntzetara itzuli zen. Garai beretsukoa da, 1964koa, alegia, “Wir Eichmann-söhne” (“Gu, Eichmann-en semeok”), hots, Andersek Eichmann-en semeari zuzendu zion eskutitza.

Andersek maiz errepikatu zuenez, gaurko gizakiok ez gara lehen baino gaiztoagoak, baina gure ekintzak, eskura ditugun tresnen neurrigabetasuna dela bide, neurrigabe bilakatu dira. Horrek, ezinbestez, giza irudimena aztertzeraz garamatza: alde ia-ia gaindiezin bat dago gizakiok “produzitzeko” eta buruan “erreproduzitzeko” gai garenaren artean. Bestela esanda, gizakiok oso irudimen ahula dugu eragin ditzakegun kalteei begira. Besteak beste, industrializatzeari zor zaion erabateko lan-zatiketarako areagotu du aipatu ahulezia hori.

6. Bakea ez da helburua, bidea baizik

1986ko urteak beste mugarri bat ekarri zuen berekin. Andersek bortxari buruzko tesi batzuk argitaratu zituen, Txernobyleko istripuak horretara eramanda. Andersek tesi berri horietan dioenez, begi-bistakoa da energia nuklearraz (bonba atomikoez zein zentral nuklearrez) gizadiari heriotza-mehatxua egiten diotenen kontrako protesta baketsuak porrot egin duela. Beraz, bakeak, dagoeneko, bide edo metodo egokia izateari utzi dio. Era berean, norik bere burua defendatzeko eskubide naturala dauka. Hau da, auzi horretan bakea helburu bada ere, horrek ez du esan nahi bakea automatikoki bidea denik. Hari horretatik, sasi-pazifismoaren klitxe asko kritikatu beharra dago, gure ekimenak eraginkorrak izango badira.

Ondorioz, Andersen aburuz, arrazionalismoaren lehenengo zeregina ondoko hau izan behar da: arrazoiak gailentzeko duen ahalmenari buruzko ilusio tronpagarriak agerian uztea.

Arrazoa ez da gauza, miloika bizilagunen desagertzea, areago, gizadiaren desagertzea bera ere, prestatzen ari diren horiek iritziz aldarazteko. Horrezaz gain, bonba atomikoen jabe izate hutsak ere, errutasun morala dakar, ezinbestez. Andersen hitzetan, bonbaren hor egoteak *ultimatum* izaeradun “txantajea” baino ez da. Zoritxarrez, alferrik da bortxari uko egitea.

Andersek zioenez, bonba eta zentral nuklearrak bultzatu dituztenek ez dute bizitzeko eskubiderik eta desagertu egin behar dira. Horrenbestez, Andersek “kontserbadore ontologikotzat” jotzen zuen bere burua. Karl Marxek esandako hura, alegia, “orain arte filosofoek mundua modu desberdinetan interpretatzen ahalegindu dira; mundua aldatzea da, halere, axola zaiguna”, ez da nahikoa, mundua aldatu eta hobetu ahal izateko aurreko baldintza, munduaren iraupena delako.

7. Beldurraren analfabetoak

Andersek sinesten zuenez, gizakiok “beldurraren analfabeto” egin gara, ez baigara gai hondamen nuklearraren ondorio eta kalteez jabetzeko. Baliteke ezbehar mota horrek irudikagarria denaren muga urratu izana. Andersek gogora ekartzen digunez, hautemate hutsa ere ez da, bestalde, ekoizten denaren pareko: zentral nuklearrak eta bonba atomikoek, Ausschwitzen erabiltzen zen gasaren kartutxoek bezala, oso irudi kaltegabea dute. Beraz, ongi prestatutako irudimenak hobe atzeman dezake egia hautemate hutsak baino. Horrengatik, irudikatze ahalmena trebatu eta indartu behar dugu, behinik behin, zertan ari garen jakin dezagun. Paradoxikoa badirudi ere, Andersen ustez, irudimena landu behar da enpiriari aurre egin ahal izateko.

Andersek, berriz, ondoko esatera ziniko hau erabiltzen zuen behin eta berriz, hondamenaren ideiak adorerik gabe utzi

dituenentzat: “Zer axola niri etsita banago, jarrai dezadan etsita ez banengo bezala”. Gaur, itxaropenaz hitz egitea koldarkeria besterik ez da.

¹ Ikus Hans Magnus Enzensberger, *Philosophie des Ärgers* («Amorruaren filosofia»). Frankfurter Hefte, 1958.

² Sari horietako batzuk aipatzearren: 1962ko Omegna Saria (Resistenza Italiana), 1967ko Deutscher Kritikerpreis (Alemaniar Kritikarien Saria), 1978ko Bavierako Arte Ederretako Akademiaren Literatur Saria, 1983ko Adorno Saria, Frankfurt Hiriak emana, 1985ko Andreas Gryphius saria (uko egin zion), 1992ko Wien Unibertsitateko *doctor honoris causa* (uko egin zion), 1992ko Sigmund-Freud Saria...

ERANSKINA: Nahikoa al da bortxarik gabeko protesta?

(Günther Andersen 1983ko testua, egileak alemanetik euskaratua)

1. Saldukeria (Traizioa)

Sasiekintza sentimental eta sinboliko hutsek osatua den gure protesta munduaren erabateko suntsiketa prestatzen ari direnen kontra, iraganeko zerbait da honezkero, argi geratu baita iraultza aurreko aro bati dagokiola.

Bortxarik gabeko aro horri amaiera ematea, alabaina (hau da, kaltegabe izaten jarraitzeari uko egitea) gure oinarri moral eta tabu guztiei kontrajarria da. Nik neuk behintzat, Lehen Mundu Gudaz geroztik, hain zuzen, irmo eutsi diet printzipio eta tabu horiei guztiei, urratuezinak zirelakoan. Beraz, bortxaren kontu horretaz jabetzeak deskribatzeko ere gogorik ez dudan egoera batera eraman nau. Baina duela gutxi, gaurko buruzagi bat txantxetan hasi zen mikrofono aurrean, irri-partxo batekin aldarrikatuz, Sobiet Batasunari arma atomikoekin eraso egiteko agindua eman berri zuela; une hartan ohartu nintzen, ongi ohartu ere, halako gauza izugarri bat besterik gabe esan daitekeela. Gainera, jakin nuenean, buruzagi haren jarraitzaileek buruzagia txalotu ere egin zutela gustu txarreko umore hura erakutsi zuelako, ez zitzaidan zalantza

izpirik gelditu: ez dago ahalguztidun horien axolagabekeria baino arrisku larriagorik. Hortaz, gu jokabide berri bati lotu behar gatzazkio: honaino helduta, debekatua zaigu adeitasunez edo jendetasunez jokatzea. Kinka larri honetan apal edo gizabidetsu izateak, gure ganoragabekeria baino ez luke agerian utziko. Areago, gure koldarkeria. Ondorengoei egindako traizioa, hots, saldukeria.

Basoak desagertzen eta hiltzen ari diren une honetan, lurra infernu bihurtzeko bidean gaudela, mamutzar atomiko mehatxutzaileak neurrigabe ugaldtu zaizkigu. Horiei bortxarik gabe buru egin nahi izatea ez zaio batere lagungarri izango gure borrokari. Mamutzarrok ez baitira ez gure hitzen ez gure erreguen ez gure laztanen bitartez aldunduko. Alferrik da gose grebak egitea. Bestalde, gogoan hartu behar dugu munstro atomiko horien alde agertzen direnek, edota eraikitzen dituztenek (gaurko “Zimmermann” horiek¹), nolana ere, edozein protesta-ekintzari –bakezaleenari nahiz sinbolikoenari– buru egite huts eta erresistentzia deritzotela. Halaber hartzen dute zuzenean indarkeriatzat edozein aurre egite edo jarkiera mota.

Ez. Gure artean ezarritako mamutzar atomiko horiei modu sistematikoan erasotzen hasteko garaia da, geure buruaren defentsa fisiko hutsa eginez, ez daitezela erabilgarriak izan hemendik aurrera. Munstrook etengabeko mehatxu bat gauzatzen dutelako gure kontra, alegia, gizadiaren kontra. Era berean, larrialdi-egoera orokor bat gorpuzten dute, anabasa sortuz; bestela esanda, mundua berriz ere kaosera eramanez.

2. Berria den guztia, moralagoa omen da

Halere, baliteke hau guztia aski ez izatea eta gure erabakia zentzugabe suertatzea. Esan nahi baita, bere apaltasunagatik zentzugabea; alde handiegia baitago, txikiziorako dauden hornikuntzen tamaina zein bikaintasun teknikoaren (berauek

babesteko dauden polizien armak barne²), eta geure kontra-arma xume edo primitiboen artean: har ditzagun gogoan (harrigarria da-eta!), ditugun eskuxerra txikitxo zaharrak, bihurkinak eta aitzurrak... “Harrigarria da-eta!” tartekatu dut, boteredunen begietan, (hots, indarkeriadunen begietan), gure armen xumetasuna lotsagarria delako, ia-ia barregarria. Auzolotsa sorrarazten die, nonbait. Edo beharbada, gure aldetik datorkien ausarkeria mingarritzat jotzen dute. Beste hitzekin esateko: indarkeriadun horiek sinestuta daude, lehiarako gai diren gailuak baizik ez direla aintzat hartu behar (demagun, fintasan tekniko gorena lortu duten armak).

Teknika-maila handirik ez daukana ezin daiteke, haien ikuspegitik, hizpide ere izan, ezta zentzu moralean ere. Horrexegatik uste dute gas negar-eragilea ehunka lagunen begietara airetik jaurtitzea moralagoa dela, lur zikinetik hartutako harriak botatzea baino. Jende horren aburuz, hiltzeko era modernoena akasgabeena da, ezinbestez, bai eta errugabeena ere. Alderantziz esanda: manifestari baten labankadak zauritua suertatzea (ez, ordea, neutroi bonba berri-berri batek eraso suertatzea), nahiko kontu zatarra genuke, hau da, norberaren ohorearen kontrakoa.

Azken finean, amaitzen ari den bigarren milurtekoaren garaikide denak eskubide osoa dauka botatuko harriak baino modernoak diren armekin borrokatua edo hila izateko. “Hil zaitez tankera aurrerakoian!”

3. Aski ote da gauzaki hilak hiltzea?

Hain da handia arma nuklear erasotzaileen eta gure etsai itzelen (berauek zaintzeko dauden polizien goi-mailako arma modernoak barne) eta manifestariok erabili ohi ditugun kontra-armen arteko desberdintasun teknikoa, non zilegi zaigun lagun batzuen ezkortasuna ulertzea. Azken hauen iritzi,

aurka egite fisikoak erabateko hondamena ekarriko liguteke. Bai, egia da: manifestarien arnei ezin zaie ezta “arma” hitza ere eman, horiek objektu bilakatutako hel-deiak besterik ez direlarik. Izan ere, desberdintasuna nabarmen-nabarmena da: alderatu dezakegu kolonietako botereek erabilitako su-armen eta Kongoko bizilagunek XIX. mendean (sutsuki baina alferrik) beren burua defendatzeko erabilitako banbuzko geziaren arteko desberdintasunarekin.

Hartan, munduko historiari begira, funtsezkoa izan zen ere desberdintasun teknikoa; eta, jakina, teknika-maila apalagoa zutenen kalterako. Gure etsaien aginteeta indarkeria-tresnen aldean, geurea ekintza-sinbolismoa baino ez da; edo ez litzateke izango, baldin eta bortxaren erabilera gauzaki hiletara mugatuko bagenu. Nork daki teknikaren bilakaera beldurgarri horrek ez ote duen, dagoeneko, (berez, “iraultza” izena eman diezaiokegu, orain arteko iraultzarik garrantzitsuena baita se-guruenik) iraultza politikoetarako aukera guztien desagertzea eragin... Hala balitz, beste iraultza bat litzateke hori, alegia, funtsezko gertakizun bat munduaren historian, nahiz eta gertakizun negatiboa izango litzatekeen. Adibidez, basapiztien desagertzearen antzeko zerbait.

Bestalde, guztiz eraginik gabea eta murrizta litzateke hilda dauden gauzakeri eraso egitea “heriotza ematea” (gure artean ditugun zalantziarik, gehien jota, onartzen duten zerbait). Bada, gauzaki atomiko ikaragarri horiei oldar egiteko gai bagina ere, ez genuke lortuko beraien bernizari urratu txiki batzuk egitea baino. Ez, ez. Gure burua mugatuko baldin bagenu halako gauzaki hilei (zeintzuen baitan milioika lagunak heriotza egon daitekeen gorderik) kalte egitera edo haien amaiera ekartzera, gure ekintzak zentzugabeak ezezik gutxiagizkoak ere izango lirateke; hain zuzen, gauzaki guztiak berehala izaten direlako ordezkatuak masa-ekoizpenaren aro honetan, hau da, edozein unetan, segituan eta inongo arazorik gabe. Hortaz, alferrik dira gure ahaleginak zerbait suntsitzeko.

Gainera, ekoizkin bakoitzetik, hainbat eta hainbat ale daude gaur egun, ekoizteko beharrak egiazko kontsumoarekin bat egiten ez duenez gero. Horrek, hein batean, suntsiezin egin ditu ekoizkinak. Edo arrandiaz esateko: hilezin bihurtu ditu.

Ildo beretik, ekoizkinei kalte egiteko mehatxua bakar-bakarrik izan daiteke eraginkorra eta zentzuzkoa baldin eta, horrezaz gainera (hobe: lehenik eta behin), argiro-argiro adierazten badiegu aipatutako tresnak ekoiztea, ezartzea eta erabiltzea interesatzen zaien horiei, orain arte soilik ekoizkintarako (gehien jota) “aurreikusia genuena”, iragarpen txiki bat baino ez dela izan (harrokeria litzateke “aurrekusi genuenaren” orde, “eragiteko asmoa” genuena esatea); eta orain, ordea, berarekin ere berdin jokatzera behartuta gaudela.

Ondorioz, izua etengabe eragiten digutenez gero, baliteke noizbait beraiek ere etengabe izaturik bizi behar izatea. Bada, kontu handiz ibil bitez. Bai, kontuz ibiltzeko haiek guztiak, bata bestearen ondotik, ustekabeko hurrenkera batean kontuz ibiltzeko... geure umeen eta ondorengoen bizirik jarraitzeko aukera bermatua izan dadin (“izan dadin”, ez adibidez, “gera dadin”).

4. Hautsitako tabua

Azken hitz izugarriok ez ditut arinkeriaz idatzi, ez beste edozein hipotesi edo iritzi edo zerbait egiteko deialdi baten antzera kanporatzen ere.

Azken batean, badira hirurogeita hamar urte –zehazki, 1914ko abuztuaren hasierako egunetatik hona–, arazo batek kezkatuta eta txundituta naukala: nola diren gizakiak elkar hiltzeko gai, atseginez ere. Hautzarotik izan ditut zailtasunak “hil” aditza ahoskatzeko, hotsa bera, hiltzeari ekitea bezain hilgarria balitz bezala. Eta oso gutxi izan dira, idazten saiatzen hasi nintzenez geroztik, hiltzeari buruzko nire izu hori aipatu ez dudan orriak.

Hau dela-eta, erabat ikaraturik eta ia sinestu ezinean naukazue, “hil” hitza idaztean: hobe esanda, “hil” hitza idatzi beharra dudan honetan. Baina ez zaigu beste irtenbiderik geratzen, mehatxu egiten digutenei geuk ere mehatxu egitea baizik. Sekula ez diet barkatuko hiltzeko tabua haustera behartu nautenei.

Halaber eskatzen dut, horretarako eskubidea dudalarik, ez leporatzeko niri inongo arinkeriarik, ondoko hau errepikatzen badut orain, bukatzeko: beste aukerarik ez dugu, mehatxu egitea da gure bide bakarra, gure belaunaldiari eta amesten ditugun ondorengoei bizitza bermatu nahi diegunez gero. Mehatxatu egin beharko ditugu lur gaineko bizitza indar nuklearraren bidez (berdin “gudarako” nahiz “bakerako” omen den hori) arriskuan jartzen tematu eta nuklearrak geldiarazteko eskaintza guztiei muzin egiten dieten gizonak, nola eta beraiei argi eta garbi aditzera emanaz aurrerantzean ehizakitzat hartuko ditugula, salbuespenik egin gabe.

Ondorioz, (min handiz den arren, auzia erabakia baita), hauxe jakinarazi nahi dut hemen: ez dugula atzera egingo gizaki horiek hiltzeko orduan, beraiek gizadi osoa hil edo arriskuan jartzeko orduan atzera egiten ez duten bezalaxe, dela beren irudimenaren mugengatik, dela beren bihotzetako ergelkeriagatik.

¹ Garaiko ministro baten abizenarekin egindako hitz-jokoa. “Zimmermann”, arotza da alemanez, eraikintza-lanetan aritzen dena. (Itzultzailearen oharra)

² Ez dakit “polizia” deitu ahal zaien gaur egun manifestarien kontra erabiltzen diren horiei, militar hutsak, hau da, gerra zibilean aritzen den armada kontrairaultzailea ematen dute-eta.

XXI. mendeko pentsamenduaren norabideez: ohitu ote dira gure belarriak?

1. Beryteko Sanchoniatonen omenez

“Gure belarriak ohitu egin dira haurtzarotik kontaera iru-zurtiak entzutera, eta gure gogoak mende luzeak eman ditu aurreiritzietan murgilduta asmakeria horiei eutsiz, berebiziko altxorra bailiran(...) Denborak lan horren burutzeari lagundu dio; eta hain izaera tinkoa eman dio indarkeriaz gertatutako ordezkatzeari, non egia antz huts bilakatu baita, eta kontakizun aizun horiek, ostera, egiaren antza bereganatu baitute”¹.

Hala esan omen zuen Sanchoniaton feniziarrek greziar teogoniez duela hiru mila urte. Ezer gutxi da ezagutzen da Sanchoniatoni buruz; baina harrigarria da zein goiz ohartu zen orduko greziarrek hartua zuten bideaz; hots, greziarrek, antzinako kulturei kontra egiteaz batera, herri-mitologiak erabat desitxuratu zituztela.

Har dezagun gogoan Mediterraneo itsasertzeko kulturak, oro har, eraso egin ziela europar herri zaharragoen jatorrizko bizimodu, sinesmen eta ikusmoldeei. Hori apurka-apurka gertatu zen, herriak tradizio, lege eta aztura zaharrei irmoki atxikitzeko joera duelako. Bestalde, Mendebaldeko filosofia

ere, greziar gizartearen baitan sortu zen unetik, suntsitzaile jokatzen zuen kultura zaharrekiko. Bada, filosofoiak, zabaldu zen toki guztietan, azpiak jan zizkion herri-jakintzari.

Izan ere, antzinako usadio eta sineskerak ezin zuten ase filosofiaren iturburutzat hartu izan den *thaumadzein* delakoa, “harridura”, alegia. Filosofoak, hortaz, bide ezezagunak urratzen hasi ziren k.a. VIII. mendean, arrazoimenaren laguntza soilaz oraindik bizi-bizirik zeuden mitoak irauliz. Azkenik, lehenagoko mundu-ikuskerak higigaitza eta mitoen bidezko azalpenak gero eta alor gehiago zokoraturik geratu ziren. Eta mitoek sinesgarri eta baliagarri izateari utzi zioten unibertsoa eta gizarte-antolamendua azaltzeko orduan. Horrexegatik dugu filosofia gaurko zientzia eta zientzia-eredu guztien jatorrian; ez, alabaina, giza jakintza osoarenean. Egia da herri-jakintzaren eta herri-egiaren adierazpide ziren mito haiek beren izaera galduz joan zirela, greziarren irudikeria eta azalkeiarengatik, Sanchoniatonek salatu bezalaxe. Baina, era berean, ulertu beharra dago zientzia eta jakintza ez direla gauza bera, nahiz eta lehena jakintza mota bakartzat hartzeko joera nagusitu den egun.

Filosofia ezinbestekoa izan da, zalantzarik gabe, zientzien aurrerapena bultzatu eta azkarragotzeko. Halaber, filosofoen egitekoen garrantzia eta beraien izaera gatazkatsua filosofiaren hastapenetan bertan ageri dira: Anaxagora Atenastik erbesterratu behar izan zen leporatu zioten fedegabetasunagatik; Atenas hiriak ere arrazoi beragatik ezarri zion heriotza-zigorra Sokrateri geroago. Horra hor, hasiera-hasieratik, filosofiaren betekizuna gizarteari begira: egiazale nahi izateagatik, korapilatsua.

Hizpidean ote zegoen Sanchoniaton? Gezurtia izatez gain, arriskutsua ere ote zen greziarren irudimena? Hobe izango al zen lehengo mitoak eta naturarekiko tabuak eta mugak aintzat hartzea, munduaren txikizioa jokoan jartzea baino?

2. Zientzia modernoaren bideak

Lehenengo filosofoen abiatze iraultzaileak gaurko zientziara eraman zuen; ez zuzen-zuzen, jakina, baizik gorabehera eta eragile askoren elkartzea bitarteko. Lehen mugarrria izandako garai bat aipatu dugu gorago, gaingiroki, Sanchoniatonen greziarrei buruzko hitz kritikoak hona ekarriz. Bigarren mugarrria, berriz, Aro Modernoaren hastapenetan dago eta naturan esku hartzen duen saiakuntzazko zientzia mota berriaren agerpenari zor zaio. Oraingoan ere ohartzen gara, filosofoak, edo hobe esanda, naturaren filosofoak eta filosofiaz arduratutako zientzialari berriak, heriotza-zigorraren arriskupean bizi izan zirela, hain zuzen, indarrean zeuden “egia” batzuez zalantzak izateagatik. Giordano Bruno, Galileo eta beste batzuen adibideek argi erakusten digute hori.

Izan ere, Eliza Katolikoak gogor egin zion, Erdi Aroan barrena, herri-jakintza zaharraren aztarna nahiz ustezko jentiltasunaren zantzu orori, betiere armadun eta garaian garai-ko boteredunekin bat eginda. Horretarako, ideien alorrean, teologo eta filosofoen arteko eztabaidak baliatu zituen, nekazekin. Baina, zientzia berria ernaltzen hasi eta berau ere gogorki oztopatu zuen Elizak, zientzia horren jokabidea nola beretu ikusi zuen arte. Gauzak horrela, noizbait bateragarri egin ziren zientzia eta Elizaren munduari buruzko ikuspegiak. Beraz, une batetik aurrera, zientziak Elizaren aginterako arrisku izateari utzi zion. Ohi legez, Eliza Katolikoak korrante nagusiari jarraitu zion, zuhurki.

Areago, Eliza zientziaren aldeko bihurtu da bitartean, eta ez du zientzia funtsezko kezka, inola ere. Elizak, hala eta guzti, zalantza batzuk agertzen ditu tarteka, bera, ez beste inor, “gida espirituala” izaten jarraitzen duela gogoraraztea helburu. Bestela esateko, zientzia eta erlijioa, bakoitza bere esparruan, elkarbitzitan ari dira arazorik gabe; gizabanakoen bu-

rujabetasuna eta herria zapaltzeari begira, berriz, ondo-ondo betetzen dute batak zein besteak dagokien zeregina, elkarren osagarri izanik.

Bestalde, zientzia boteredunen menpekoa da, aurrera egiteko finantzaketa beharra duen heinean: ikerketa zientifikoen sustatzea gastu militarren eskutik doa. Era berean, zientziaren ikerketak eta emaitzak gizarte zibilaren esparrura eramaten dira, behin arlo militarrean erabiliak izan ondoren. Ezbairik ez, zientziak betebeharrak ideologikoa dauka Gure garaiko gizartean, eta dogma bati bezala atxikitzen zaio.

Dagoeneko, hirugarren mugarrira heldu gara: hau da, energia nuklearraren XX.mendeko aurkikuntzara. Ikerketa nuklearra, Bigarren Mundu Gerra bitartean bultzatzen zen lehenengoz, nazien kontrako borroka aitzakiaz; geroago, erabilera *baketsu* –eta errentagarri– bat bilatu zitzaion energia nuklearrari zentral nuklearrei esker, bai eta, besteak beste, medikuntzaren arloan ere. Egun esan gabe doa gizakiok naturan esku sartzea dugula, askatasun osoz. Desagertu egin dira herri zaharrek esku-sartze horren gainean zituzten beldurrak. Hannah Arendtek ongi azaldu zuenez, askatasunaren esparrua lekuz aldatua izan da, politikatik natur zientzietara: nor eta naturaren zientzialaria bihurtu da askatasunezko jokatzeko baten eredu². Baina askatasuna, berez, politikaren alorrekoa baino ezin daiteke izan; hots, gizakion askatasuna giza antolamenduari dagokio. Agidanez, gizakiok espazio politikoko askatasuna galdu, baina naturarekiko irabazi dugu; hain zuzen ere, geldotasuna, ekimenik eza eta giza aferei buruzko axolagabekeria –hots, askatasunik eza– nagusi direlako bitartean “demokrazia” izeneko sistemetan.

Ordea, ongi dakigu, jakin ere, Hiroshimaz geroztik, gizakiok munduaren desagerpena ekar dezakegula naturaren legeak urratuz gero. Bada, munduaren jarraipena bera dago arriskupean energia nuklearrarengatik. Hona hemen, paradoxa: gizadia libre ari da natura, mugarik gabe, eraldatzen; gizabanakoek, alta, ezina pairatzen dute masa-gizarteetan, sekula

baino askatasun gutxiago dutelarik. Gure garaiko antolamendu politikoak ez du ia-ia zirrikiturik uzten ekimen politikorako; ez, jakina, diktaduretan, baina ezta *demokrazia formaletan ere*. Hala bada, XX. mendea totalitarismoaren mendetzat hartua izan da.

Horrenbestez, zein balioespen egin daiteke ezari-ezarian taxutu eta aginpideak berak aspalditik bultzatzen duen zientzia *iraultzaile ohiari* buruz? Arma nukleardunek kale itsu batean sartu dute gizadia, zientziaren alde hiltzaileen bitartez. Horrezaz gain, populazioak beste arrisku larri batzuk bizi izaten ditu inperio *global* orojalean: hala nola, lehengaien agorpena, klima aldaketa, giza *akats* genetikoaren *zuzenketaren* mehatxua eta *xantaia nuklearra*, Günther Anders filosofoaren hitzetan³.

Bestalde, antzinako gizakiek *mezu* iraunkorrak utzi zizkiguten gerokooi, bai harrietan idatziz, bai ondorengooi elezaharrak helaraziz, ahozko tradizioaren bidez. Guk darabiltzazun datu-euskarriak, aldiz, guztiz galkorrak dira, eta hurrengo belaunaldientzat irakurtezinak, ziurrenik. Badirudi zabor nuklearrak eta hondakin pozointsuak izango direla, aurretzean, gizakiok bilatu ohi dugun hilezkortasunaren adierazgarri bakarra. Gerokoek, zer eta desagerrarazi ezin daitekeen kutsadura jasoko dute gugandik ondareztat.

3. Doilor eta zitalei

Bada, filosofoek sail ugari erein izan dute historian zehar, oztopoak gainditu eta boterea itxuraldatzera behartu ondoren; ez dute, ordea, boterearen zerizanaren beraren eraldaketa lortu, garaian garaiko eta tokian tokiko botereak, behin pentsamenduaren emaitzez jabe eginda, emaitza horiek bere onurako erabili ohi dituelako. Gogoeten garaipena, etikari dagokionez, orain arte *pirrikoa* baino ez da izan, antza. Lehia horrek gaizkia eta ongiaren artekoa bezain zahar eta saihestezina dirudi.

Ekar dezagun hizpidera filosofoek arreta ipini duten beste eremu bat: hots, langileen eta, oro har, gizakien ustiake-ta eta alienazioarena, gizarte-ekonomia aldatzeko marxisten eta anarkisten asmo politikotik hasita, XX. mendeko masa-gizarteetako gizabanakoen *moldagarritasunaren* salaketaraino. Pentsalarien gizartearekiko ardura horretan, Berlingo harresiaren erorketak berebiziko garrantzia hartu zuen 1989an, ez-bairik gabe. Bada, bilakaera historikoa ikur-izaera bereganatu duen gertaera bati lotzen zaio maiz, eta gertaera bakar bat, ustekabea, iraganeko alde ulergaitz guztiak ulertarazteko gai izaten da.

Bada, Berlingo harresiaren erorketa hark agerian utzi zuen, behin betiko, bidegabekeria borrokatzeko sortuak ziren ideologia ezkertiarren porrota (behintzat, modu egonkorrean gauzatu zirenean).

Hartan, “giza historiaren amaiera” aldarrikatzeke hotsandiko saioa egon zen *eskupeko pentsalarien* aldetik, porrota haren ondoko etsipenari etekina atera nahian⁴. Historiaren bukaerari buruzko tesiaren arabera, *aro profano* delakoan bizi gara, dagoeneko, eta hori bilakabide ideologikoaren azken maila den oraingo demokraziari zaio zor. Beraz, hiritarrok munta politikorik gabeko gertakariak –soziologoek *portaerak* hobe esanda– errepikatu besterik ez dugu egiten. Nolabaiteko sasi-itzulera bat da, hain zuzen, historiarik ezagutzen ez duen mitoaren ikuspegi ziklikora. Hortaz, historia amaitu baldin bada, ez dago inoren esku gertaera esanahitsurik eragitea, *status quoren* luzatze amaigabea jarraituko dugularik. Begi-bistakoa da nori letorkiokeen ongien balizko egoera hori.

Izan ere, historiaren beraren kontzeptua, *historein*, eta filosofia, aldi batera jaio ziren Grezian. Bi-biek, gizakiak ibilbide astitsu bati lotzen zizkieten lokarriak askatzen lagundu zuten. Munduko bizilagunen ugaltzea eta beronek sorrarazitako le-kualdaketak gero eta bizkorragoak izaten hasiak ziren orduan. Jazoeren *abiaduraz* ari gara. Gaur, berriz, aldaketak ezin uga-

riagoak eta azkarragoak dira, hain neurri handian, non higidurak tronpatu eta nahasten gaituen, egiazko *zerbait* –hau da, ezohikoa– gertatzen ari denaren itxurapean. Horretan aurrea egiteko, zientziaren eta ekonomiaren *beharrak* eta *legeak* erabiltzen dira aitzakiatzat. Anitzetan, mugimenduagatiko mugimendua baino ez da izaten, hala ere. Era berean, esan daiteke ez dagoela mugimenduari behar bezala antzeman ahal izateko ezinbesteko den gutxieneko egonkortasunik. Bestalde, *mass-mediak* jaun eta jabe dira abiadura zentzugabearen irudia elikatzen; eta bide egiten diote gizarte gaixo bati, bihotzak kutsatu eta arrazoimenaren iharduerari eragozten dioten heinean.

Hari honetara, gizartea orainaldi *zirin* batean bizi da, asmoak gerorako uzten eta proiektatzen. Orobat, *ezgaitasuna* dago oroipen eta gogoetetarako. Alabaina, gailendu den axolagabekeria horrek ez du, derrigorrez, esan nahi historia betiko agortu denik. Ez dugu zertan sinestu, ekimena eta munduari buruzko galderak egiteko ahalmena oro murrizturik ditugun arren, giza gaitasun horiek errotik desagertu direla, ez eta jaio berriak aurrerantzean horiek gabe munduratuko direla ere. Belaunaldi berriek izango dute hitza.

Utz ditzagun, beraz, alde batera estatu handien morroi diren pentsalari handigurak eta zitalak, filosofiarekin baino, beren buruekin eskuzabal jokatzeko dutelako. Filosofoek jai dute, baldin eta esker ona jaso eta aintzat hartuak izateko itxaropen soilaz egiten badute lana.

Ondorioz zer esan XXI. mendeko pentsamenduaren nora-bideei buruz? Jean Ziegler-ek, herri kolonizatu eta zanpatuen ikerle eta ezagule bikainak sinesten duenez, gaurko giza go-goaren babes bakarra, non eta Inperioa indarkeriaz hedatu den herri *ez-garatu*, behartsu eta oraingoz *ez-berdinduetan* birlatu beharko genuke; hots, haren iritziz, aipatu herri horiek basamortuan idorotako iturria, arimaren atsedenekua eta bizi-pozaren adierazpidea dira, besteak beste, tradizioa atxiki dutelako⁵. Herri zahar horiek dira, nolabait, giza zentzuaren

azken gordailua. Zein tradiziotaz ari da Ziegler, alabaina? Badakigu hainbat tradizio eta usadio itogarri direla eta sormenaren etsai; hau da, ikertu eta aldatu beharrekoak. Hala eta guztiz, Ziegler-ek sinesten duenez, dugun duintasun bakarra, mundu honen antolamendu itxuragabea argiro ezagutzean datza. Hor dago gakoa. Ildo horretara, beraz, ez dezagun mozorratu nonahi dagoen bortizkeria *globalizazio* hitzaz.

4. Ilunpetako giltza

Azken Mundu Gerra, historialari askoren iritziz, Europako herririk zaharrenari egindako sarraski motarik berrienaz hasi zen, hain zuzen, 1937an Gernikan, populazio zibila lehen aldiz bonbardatu zuten hegazkinak erabiliz. Pentsalari askoren ikuspegitik, berriz, Bigarren Mundu Gerrak berretsi egin zuen Nietzsche, Kierkegaard eta XX. garren mendeko beste filosofo batzuek, erronka joz, hasitako bidea. Horrexegatik, mendebaldar pentsamenduaren harian gertatutako etentzat hartu izan dira orduko gertakizun garrantzek. Harrezkero, mendebaldar tradizioaren behin betiko galera horrek eraginda, hainbat filosofok aldarrikatu dute filosofia, beronen kategoria guztietan, *desegiteko* asmoa.

Filosofiaren aipatu *eraiospena* abiagune bat izan liteke, ausaz; hots, hausturaren ostean geratu diren pentsamenduaren zatiak beste hari bati jarraituz atontzeko ahalegin bat. Nolanahi ere, filosofiaren eginkizunik baztergaitzena hasierako bera da, oraindik: giza duintasunari irain egiten dion edozein iruzur salatu eta edozein kate apurtzea; berdin da zein eremutan diharduen pentsamenduak, bai eta betebeharrak horretan bere burua desegin behar badu ere.

Zentzu horretan, filosofiaren barrutira eramanez litezke T.E. Lawrencen –Arabiako Lawrence ezizenez ezagunagoa– honako hitzok:

“Gune lohiak dauzkan jendeak saihestu egiten ditu; zeharka aipatzen ditu, baina ez ditu sekula zuzen aitortzen. Jende hori zikinguneak agertzearen beldur da. Hala eta guztiz, erraz aurki daitezke, alegia, dauden hutsuneak agerian jartze soilaz”⁶.

Lawrencen aipuak aukera ematen digu alderdi desberdinetako zenbait kritikari ekiteko; etnozentrismoari, hasteko. Non datza, adibide bat jartzearen, Hannah Arendten sinesgarritasuna, aztertu eta goraipatu zuen Estatu Batuetan sortutako demokraziari buruz, kontuan hartuta Arendtek bertakoen patuaz –esan nahi baita, *indioenaz*– ardurarik agertzen ez duela inon? Beste hitz batzuekin esanda, Arendtek ez du aipatzen (ez da horretan bakarra) bertakoak, hasiera-hasieratik, demokraziatik kanpo geratu zirela; areago, Arendtek ez dio garrantzirik ematen, antza, Ameriketara heldu berriek bertakoei lurraldeak bortxaz lapurtzeari ekin izana, demokrazia laudagarri hura eraiki ahal izateko⁷.

Hausnarketa horri jarraipena emanez, non bilatu beharko genituzke, hamaika erasok ia lurperaturik, jatorrizko europar jakintzaren aztarnak? Agian, antzinako herri azpiratu baten hizkuntza erdi galdu, erdi galarazian. Zoritxarrez, euskarari buruzko ikerketa ontosemantiko gutxi egiten da⁸. Emankorra da, izan ere, jakintzari dagokionez, hizkuntza zahar batek bere baitan dakarrenari erreparatzea, hizkuntza hori hizkuntza arrotzen kategorietatik abiatuta arakatzea baino askoz ere emankorragoa.

Lawrencen ilunguneen ildotik jarraituz, ezagun da filosofo gehienak gizonezkoak izan direla. Filosofoek, gainera, beti jo izan dituzte emakumeak ezagumenerako eta filosofiarako ezgai. Emakumezko filosofo asko, aldiz, zientzia eta filosofiararen alde *ilun* horiek aztertzen aritu dira 70eko hamarkadatik; bitartean, pentsamenduaren historiatik “desagertuta” egon diren hainbat eta hainbat emakumezko pentsalari berreskuratu

eta ezagutzera eman dituzte. Dena den, hauxe da galdera: zer esan nahi du, gizonezkoek gai horretaz axolagabe jarraitzeak? Oso gizonezko gutxik heldu diote aipatu berreskuratze-lanari. Badirudi ez dutela burua hautsi nahi emakumezkoen filosofoen gutxiespen historikoa aztertzen, bazterketa horrek filosofiarako ondorio latzak izan dituen arren.

Isiltasuna lotsagarria da hitz egin egin behar denean⁹.

Izan ere, Descartesek *materia* eta *espirituaren* arteko banaketa zorrotza finkatu baino lehen, Erdi Aroko alkimistek nahitaezko baldintza bat betetzea eskatzen zuten: saioari heldu baino lehen, beren *barruari* so egitea, beren burua hobetzeko helburuarekin. Alkimistak *barruko* jarrera *kanpoan* islatzen delakoan zeuden; alegia, alkimistek uste zuten *espirituak* eragin zuzena zuela beren xedea zen metalen (*materiaren*) eraldakuntzan. Demagun, jarrera horrek pentsalariei eta zientzialariei sormen-lanetan ere eraginik izan dezakeela.

Andrei Tarkovsky zinemagileak sortzaile baten jarrera egoki eta zuzenaz egin zuen hausnarketa. Eta hala esan zuen:

“Lanbidearen trikimailuak erraz ikas daitezke. Ez, ordea, nor bere lan arloan duintasunez eta burujabetasunez aritzea; berezko nortasun bat izatea. Ametsetako filma egiteagatik mandatuak betetzen diharduena, bere printzipioak salatu dituen zinemagile iruzurtia da, eta ez du sekula bere-berea den filmik egingo”¹⁰.

Hemen, trebetasun eta antze teknikoaz haratago dagoen erabaki bati buruz ari da. Ikuspegi horretatik, zientzia eta filosoofiaren arloko sormena ere jakinduria ez-zientifiko baten menpe kokatu beharko litzateke beti.

Geroaldiari dagokionez, non dago giltza? Ipuin *sufi* zahar ezagunak azaltzen duenez, gau ilun batean, Nasrudin izeneko pertsonajeari, etxeko atea irekitzera zihoala, giltza erori zitzaion. Nasrudin giltza bila hasi zen berehala, non eta etxetik hurbil zegoen kale-argi baten inguruan.

Norbaitek Nasrudin ikusi zuen giltza bilatzen ari zela, eta harriduraz galdetu zion zergatik ez ote zuen begiratzen giltza eroria zen tokian. Nasrudinek hauxe erantzun omen zion: bilatzen ari zen ingurua ongi argitua zegoelako, ate ondokoa, ordea, ilunpean. Nasrudinek bezala egiten dugu maiz erantzunen bila abiatzen garenean.

- ¹ Ikus Pauly-Wissowa, *Real-Enzyklopädie der klassischen Altertumswissenschaften*. J.R. Metzlersche Verlagsbuchhandlung. Stuttgart, 1920. II. saila, I. liburukia. 2231/50 orr.
- ² Askatasuna eta zientziari buruz, ikus Hannah Arendtek idatzitako ondoko testu hau: “What is Freedom?” *in: Between Past and Future*. Faber and Faber, London, 1961.
- ³ Nuklear xantaiari buruz, ikus Günther Anders, “Reicht gewaltloser Protest?” (“Nahikoa al da bortxarik gabeko protesta?”). 1987ko maiatzaren 9an TAZ egunkarian argitaratua.
- ⁴ Francis Fukuyama, *The End of History and the Last Man* (1992).
- ⁵ Jean Ziegler, *La victoria de los vencidos*. Ediciones B. Barcelona, 1988. Hitzaurrea.
- ⁶ T.E. Lawrence, *Seven Pillars of Wisdom*, 1922. (*Los siete pilares de la sabiduría*. Huerga & Fierro. Madrid, 1997. (Egileak Hanley lagun idazleari 1931ko uztailean idatzitako eskutitza.)
- ⁷ Horren gainean, ikus Hannah Arendtek amerikar eta frantses iraultzari eskainitako lana: *On Revolution* (1993).
- ⁸ Horren harira, ikus, adibidez, Angel Goenaga, *Uts: La negatividad vasca*. Leopoldo Zugaza. Durango, 1975.
- ⁹ Filosofiaren arloan, besteak beste, ondoko lan hau dugu nabarmentzeko: Mary Ellen Waithe Editor, *A history of Women Philosophers*. Kluwer Academic Publishers. London, 1987.
- ¹⁰ Andrei Tarkovsky, *Die versiegelte Zeit*, Ullstein Verlag. Frankfurt, 1989. (Zigilatutako denbora) Aipua alemanetik itzulia da. (Gaztelera: *Esculpir en el tiempo*, 2013).

BIGARREN ZATIA
BIDAROA

Hutsa zer da?

Nork esango zuen horren astuna eta orojalea izan zitekeela hutsa, hainbatetan ezgauza eta hutsaltzat hartu badugu ere, geure ezjakintasunagatik.

Baina ustekabeen inguratu zaigu, lepotik heldu eta atzetik besarkatu gaitu, basoko itzal baten antzera, zeinaren jatorriaz ezer ez dakigun, zuhaitz batetik itzuri dela baino. Esaterako, zutik dirauen horko zuhaitz ihar, barne-huts eta bizigabe horretatik. Oraintxe askatu baita itzala, zuhaitzak oraintxe utzi baitu gugana joaten; areago, agindua ere eman dio itzalari, bere ondotik igaro berri diren ibiltariok lehenbaitlehen atzemateko.

Eta bertan gelditu gara, zuhaitz bat izandako hori, begiak itxita, irudikatzeko, adar hautsiek azal zartatuan utzitako aztarnei antzemateko. Lotu egin gara, argia sartu ezinik dabilen enbor hori, zomorro beltzez josia dagoena, gogora ekartzeko.

Honaino jarraitu digu, beraz, hutsaren itzalak, orpoz orpo. Eta edonora lagunduko digu aurrerantzean. Gure indarren neurgarri den bizkartzain bizkarroi horrek motzean lotuko gaitu hemendik aurrera.

“Gu hor gauden bitartean, ez dago heriotza; ordea, heriotza helduko denean, gu ez gara egongo”, esan zuen Epikurok Antzinaroan, gure funsgabeko beldurrei aurre egin nahian. Hala ere, bestelakoa da kontua, heriotza-kutsua bizitzearen beldur denari itsasten zaiolako; hain zuzen, beronen baitako hustasunaren eskutik.

Hutsa zer da? Bularrean hazi zaigun ozono-zuloa, edozein betegarriz berdintzen zaila; gaixotasun ezaguna bezain larria. Batzuek, berriz, besteren hutsa baliatzen dakite, hurkoa erakarri eta beren esanetara dantzan jartzeko.

Hortik kanpo hutsunerik ba ote den ala ez jakin-nahiak, buruhauste handiak sorrarazi dizkie pentsalariei. Ezetz dirudi: zientzialariek hutsarterik “hutsenean” ere uhin, izpi, zatiki, materia zein energia ilunak aurkitu dituzte-eta. Unibertsoan ez omen da inon erabateko hutsik. Nola izango da nonbait, berez ez dena? Kale itsua, baldin eta hizkuntza mota hori erabiltzen baldin badugu, behinik behin. Gurpil zoro horrek, Izate eta Ez-izate, mugadun eta mugagabearen arlora eramango gaitu; bai eta munduaren sorrerara ere, esan nahi baita, armadunekin ezkondu diren zenbait erlijioaren aginterri historikora ere.

Kontuz gero! Gure gizartean ezer ez da kaltegabea, ez doakoa. Zenbat eta gaiztoagoa erlijio-erakundea, alegia, zenbat eta arituagoa bera gizalegea huts egiten, hainbat eta hitz ederrago, bakezaleago eta labanagoak erabiliko ditu..., nahiz eta salbuespen-egoeretan, hau da, ikara gordina eragitea beharrezkoa denetan, zakar jokatuko duen, itxurarik egin gabe. Esaterako, Giordano Bruno dugu Antzinaroko atomisten ikuskera –gorago aipatu Epikurorena barne– bereganatu eta, besteak beste, hutsaren hipotesiari Aro Modernoan berriro ekin zion lehena. Horrexegatik erre zuen Eliza Katolikoak 1600. urtean. Bada, Giordano Brunok erronka ederra egin zion Platon eta Aristotelesen pentsamolde guztiz finkoari. AntzinAroko bi filosofo horien arabera, naturak hutsa saihesten du, dion “izuegatik”. Hutsik ez, hortaz. “*Horror vacui*” delakoak ez al zuen, alabaina, zerikusi handiagorik izango, filosofoek barruan zuten debeku batekin, hots, ezereza buruan erabiltzeko eragozpen kulturalarekin?

Nolanahi ere, hutsaren beharra zegoen Aro Modernoko kosmologia berriaren atarian, bai espazioa, bai unibertsoa bera ere zabaltze aldera.

Izan ere, zientzialari haien hasierako saio enpiriko iraultzaileek laster frogatu zuten, hutsa egon badago: non gehiago, non gutxiago, jakina. Eliza Katolikoak, aldiz, “hutsaldu” egin zuen hastapenetan arriskutsu zeritzona eta bere irakaspenekin bateratzen joan zen, pixkanaka, heriotza-mehatxu eta erreketak batzuk gorabehera. Gauzak horrela, orduko aurkikuntza zientifikoei esker, gure planeta lekualdatua izan bazen ere unibertsoaren erdigunetik unibertsoa batera, Jainkoaren irudira sortutako gizakiak sorreraren erdi-erdian egoten segitu zuen. Eliza Katolikoak, sinesmenen kudeatzaile trebea...

Hutsa dela-eta, euskal hizkuntzak ekarpen berezia egiten dio filosofiari, Angel Goenagak *“Huts: la negatividad vasca”* (1975) izeneko ikerlanean ongi azaldu zuen bezala. Haren iritziz, gure itxaropenean ageri den ezusteko arrakala da hutsa, Izatearen betetasuna zalantzan jartzen ez duena. Hutsa ernatu ez den hazia da, mukuru bete ez den ontzia, gauzatu gabeko asmoa, alferrik galdutako ametsa: ezurtea, akatsa, gabezia. Hutsak geure ahalmenen porrota adierazten du, gizakiok bete-betekoak ez garenez gero.

Hala erakusten digute “huts” hitzaz osatzen diren euskal esamoldek eta esapidek: hutsak, noiz eta zerbait beteateko uste dugularik harrapatzen gaitu. Adibidez, jende askori harrera egiteko eraiki den etxean, bizilagun guztiak desagertu direnean. Edo –jenderik bertan egon arren– giza harremanak hotzak eta motzak egiten zaizkigunean. Orduan, beste nonbait bakardadea baizik ez litzatekeen hori, hutsa baino hutsago suertatzen zaigu, arrotasun jasangaitza.

“Egunero ezkatatzen da
nire buruaren puzkatxo bat:
orduz ordu
ilez ile
muxuz muxuz
atzera eroriz

amaigabetasunera:
nire begiak dira
maitea
zahartzen ez diren bakarrak
zure argiak argitzen dituen artean”.

Yvan Goll poetak, non eta hain iheskorra den maitemina-
ren menpe kokatu zuen hutsaren kontrako bere borrokaldia,
“Itzulera unibertsoa” olerkian.

Erbestearen garaitzea

Parisen hil zen Friedrich Chopin, alegia, erbestean, eta bertan datza ehortzirik. Bihotza, halere, Chopinen azken nahia betetzearren, Varsoviara itzuli zuen haren arrebak. Beraz, Varsovian dute aberkideek Chopinen bihotza gorderik, musikariaren oroimenari irmo lotuak, betiere.

Gorpuari gertatutakoa, Chopinek bizitzan jasan behar izan zuen erdibitze baten adierazle argia dugu; ia-ia, argiegia, hau da, mingarriegia. Zatiketa hura egiari dagokio, edonola ere. Bada, zatikatze amaiezina izan zen ere –areago, triskantzatza– Polonia herrialdeak, hots, Chopinen sorterriak, garai haietan behin eta berriz pairatu zuena.

Poloniarren 1830eko udazkeneko matxinada ezagunak errusiar agintekeriaren kontra, Chopin kanpoan zegoelarik izan ziren. Halere, Chopinek, poloniarren porrotararen ostean, deserriratzea erabaki zuen, beste milaka poloniar emakume eta gizonek egin zuten antzera. Behin Parisen, aurreko belaunaldiko iheslariekin egin zuen topo, hain zuzen, mende bukaeran errusiar armadak azpiratutako borrokalari ohiekien.

Poloniar asko eta asko hilik suertatu ziren, aurreko hainbatetan gertatu bezala, edo errusiar gobernuak Siberiara eramanez. Hura poloniar abertzaleen ezina, errusiar tsarekiko! Erbestean, berriz, dena zen arrangura. Eta iheslariak solasaldi mingotsei eta aberriaren hondamenaren gaineko eztaba-ida amaigabeei ekiteko ohitura zuten. Chopinek, alabaina, ez omen zuen inoiz elkarriketa samin haietan esku hartu nahi

izaten, nahiz eta aberkideen bilera haietan egon ohi zen beti, adi-adi. Pianoren bidez, ordea, hitza ematen zien adiskide haiekin partekatzen zituen atsekabe eta ardura larriei; halako eran, non Schumann musikagile alemaniarrak “lore azpian murgildutako kanoitzat” iritzi baitzion haren musikari:

“Iparreko monarka tirano bortitzak baleki, zein arrisku-tua den Chopinen musika-lanen mehatxua, hau da, haren “Mazurkak” piezetako molde errezetan dagoen mehatxua, debekatu egingo lituzke horiek”¹.

Bada, XIX. mendeko poloniar kulturaren sortzaile nagusiek jaioterritik kanpo bizi behar izan zuten. Hala eta guzti, berebiziko ekarpena egin zioten herriaren borrokari, nola eta nortasuna atxikitzen eta garatzen lagunduz.

Chopinek, ezagun denez, nonahiko lagunei egiten zien harrera etxean. Are abegitsuago jokatzeko zuen herrikide zituenekin. Izan ere, Chopinek poz handia hartzen omen zuen Poloniako etorri berrien hizkera eta doinua aditzen zituenean. Prest egoten zen, heldu berrien kontuak entzuteagatik, poloniar bisitarietara hainbatetan erakutsiak zizkien Pariseko ikusgai guztiak behin eta berriz erakusteko, zeregin horietan sekula aspertu gabe.

Zalantzarik gabe, zailak eta anitzak dira atzerriratuen bi- zipen eta sentipenak, eta bakoitzak ahal duen moduan egiten die aurre. Bada, gertakari batek baino, istripu latz batek egotzen du deserriratu egoera berrira. Gertakari horrek errotik aldarazten dio izaera gero. Eta erbesteratuak, min hartua denez, zauria eragin diona baizik ez du ardura izango, luzaroan. Ongi daki, jakin ere, aurrerantzean ezerk ez duela beteko galdu duenaren lekua. Herriminak hartuko du errefuxiatua, beraz, tarteka; eta tarteka, ezaxolak eta etsi gaiztoak ere. Horrela, iheslariak hamaika ezurte emango du bere barneko gotorlekuan tematsu, garai bateko oroitzapen maitatuei eustearren. Batzuetan, berriz, ez da gai izango isla moteleki baino

antzemateko inguruan, eta isla motel horiek azala ere ez diote ikutuko. Hortaz, bizirik egoteak ez du, haren baitan, egunen joan-etorriekin bat egingo. Desegin egingo zaio denbora. Hala bada, une zailenetan, irudi bakarra izango du aurrean, horman tinko iltzatua: hain zuzen, mugiezinarenekin aharratsi lazgarria.

Berdin jarraituz gero, erbestera bideratzen den heriotza baino lehenagoko heriotza, desagertze goiztiar bat emango du laster. Baina kanpotarra, noizbait, zulo ilun isil batera laban egiten ari dela jabetuko da, ezinbestez. Eta, ondoren, edonongo jendartera hurbiltzen ahaleginduko da, aurrez aurre izan duen ebaki beldurgarriaren gainetik jauzi egin eta egoerari gaina hartu arte; alegia, biziari berri bati lotzeko gai izan arte. Aipatu horiek bilakaera baten gorabeherak izaten dira edo, agian, beste ikuspegi batetik begiratuta, ezagutzaren bidean sakontzeko aukera:

“Aberria (...) gizaki bizi bakoitzarengan gauzatzen den iraganaren eta geroaren uztartzea da (...) ez, ordea, tiraniak mozorroturik agertzen zaigun patuaren bortxak nahi duena. Aberriaren muina hori izanik, nork kenduko digu? Berdin non gauden, inork ezin izango digu aberria kendu”.

Hala esan zuen Gregorio Marañonek, Espainiatik kanporatutako sendagile eta idazle errepublikazaleak, “Espainiatik kanpoko espainiarrak” izeneko liburuan.

Nolanahi ere, ez dago nor bere baitan arrotzea baino okerragorik. Hots, sorlekuan egonda ere, amets egiten ez jakitea, sorgor bizitzea:

“Zu baino indartsuagoak diren batzuek zure herritik bota zaituzte. Baina biharkoek, zer esango ote dute zutaz eta haietaz? Ziur al daude bota zaituztenak bihar bertan hizpidean egongo ote diren? Esetsia denaren ahotsak, ordea, oihartzun ozenena izaten du epe luzean, baldin eta jasadako eraso neurrigabeak arrazoirik ez daukanari ere ematen dion arrazoi horri eusten badaki”².

Gaurko atzerriratuek ere, Chopinek egin bezala, erbeste-garaitzen saiatzen dira munduan zehar, jatorriari uko egin gabe, nahiz murriz inguraturik, nahiz tropikoetako lurralde heze beroetan, nahiz bazter hotz arrotzenetan.

¹ Robert Schumann, *Neue Zeitschrift für Musik*. (Aldizkaria) 1836-04-22. Nikolas I Errusiako tsarraz ari da.

² Gregorio Marañón, *Españoles fuera de España*. Espasa Calpe. Madrid, 1947. 14 orr.

Motordunen hasiera txarra

Hasiera txarra izan zuten ibilgailu motordunek Suitzako Grischun (Grisonia) kantoian. Beste hitz batzuekin esateko, pauso hutsa izan zen hura lehendabizi, eta ondoren, bihurtu gaiztoa: ibilgailu motordunen agerpenak irtenbide zaileko arazoa sortu baitzuen bertan, luzerako sortu ere. Bada, hasiberrian zenbait kalte eta istripu eragin eta gero, aipatu kantoiko gobernuak herritarren nahiarekin bat egin eta auto, bus nahiz kamioei kantoiko bide-sare osoan ibiltzeko erabateko debekua ezarri zien 1900ean. Erabaki hark 25 urte luze eta gorabeheratsu iraun zuen, eta hamaika eztabaida, hika-mika eta tirabiren sorburua izan zen. Hortaz, inguruko herrialde guzti-guztietan autoen aldeko joera nagusitzen ari zen hartan, grisoniar tematiek haize kontra jo zuten, autoei beren kantoian sarrera eragotziz.

Orduko egunkarietan argitaratzen ziren “irri-marrak”, grisoniarren jarreraren berri argia bezain zirikatzailea ematen digute. Alegia, halako “makina kirastuak” errepideetan azalduz gero sortzen ziren irudiak dira horiek: ardiak aldapan gora arinetan, txakurrak zaunkaka, behiak harri eta zur, behorrak arrapaladan, baserriko hegaztiak ihesari emanak... eta nahaste-borraste haren erdian, baserritar bat sutan, akuilu bat eskuan. Auto barruan, berriz, motorraren burrunbak sorgortutako gidari axolagabe bat, gizonzkoa berau, betiere andereño apain batek alboan duela. Hau guztia gutxi balitz, Alpeetako mendi

zuritun ikuspegi ederra galarazten duten ke-laino itzelak ikusten dira garaiko komikietan, baita hauts harrotu piloa ere.

Izan ere, Alpeetako bide mehar eta sigi-sagatsuak legarezkoak ziren hartan; jakina, arriskuz beteak ere bai. Halere, udatiarrek osaturiko elite berri bat, autozaletasuna kiroltzat hartuta, herriz herri joaten zen, arrandiaz. Horrexegatik, bertako bizilagunak berehala nazkatu ziren auto haien joan-etorriez.

Jendeak laster hartu zituen begitan ibilgailu motordun guzti-guztiak. Esan bezala, grisoniarrak urte askotan ibili ziren gero iritziz aldatu ezinean. Egunkari zaharretako kroniketan ere irakur daitekeenez, autoaren asmakizunak berak izandapen barregarriak hartu zituen: “gasolina-zurruteroa”, “infernuko trepeta”, “luxu-gai madarikatua”... Autoen jabeak ere ederki larrutuak izan ziren, errukigabe: “aberaskumeak”, “harroputzak”, “jauntxo gidariak”...

Autogintzaren garapenak toki guztietan zeraman abiaduraz ohartu bezain pronto, ordea, gobernu hasierako ebazpen zorrotza biguntzen ahalegindu zen, hautsi-mautsi bat bilatze aldera; baina alferrik. Gauzak horrela, hurrengo mende laurdenean, gobernuak hainbat herri-galdeketa antolatu zituen, “ibilgailu motordunei bai ala ez” deliberatzea helburu. Egin ziren bederatzi erreferendumetan, gehiengo oso batek autoen gaitzespenari eutsi zion, behin eta berriz, botoemaileen parte-hartze handiarekin, gainera. Hamargarren erreferenduma azkena izan zen, 1925ean. Oraingoan, baiezkoa gailendu zen, gehiengo urri batez: botoen %52. Geroztik, alabaina, Grisonian ez da, autoei dagokienez, atzera egiterik izan, beste edonon gertatu den bezalaxe.

Nolanahi ere, errazegia litzateke Grisonian gertatutakoa nekazari begilaburren xelebrekeriatzat jotzea, edo hiritik zertorren guztiari uko egin nahi zioten tradiziozale amorratuen bitxikeriatzat. Gogoan hartu behar da gatazka hark oso alderdi aurrerakoiak hartu zituela barne. Esaterako, eztabaida hari

esker herritarrei hausnarketarako bidea eman zitzaien, autoen alde onak eta txarrak jendaurrean aztertuz; denen ongia baitzegoen jokoan. Eskualdea kutsatu eta ohiko giro lasaia haustez at, zein mesede egiten zion garraibide berriak herriari? Horixe zen gakoa. Zergatik hartu behar zuen gutxi batzuen atseginak lehentasuna, talde edo kolektiboaren kaltetarako? Ikusia denez, autoak erroetan daraman ezaugarri bat da hori.

Agintarien jokaerak ildo horretatik jo zuen aurrerantzean, zuhurki. Autoak baimendu nahian, gobernuak bestelako norabide bat hartu zuen: ibilgailu motordunen alde agertu zen, baldin eta berauek gizarte-arloan lagungarriak eta baliagarriak baziren; besteak beste, sendagileak herrietara eramateko, larrialdietan elikagaiak banatzeko, eta abar. Hari horretara, 1919an lehen posta-autoek lortu zuten kantoia sartzeko baimena. Grisoniako gaurko garraio-busek “posta-bus” izena gorde dute, nahiz eta, urteen buruan, posta-bus hutsa izateari utzi eta jendea garraiatzen hasi ziren.

Bestalde, autoekiko arazo horiek sortu orduko, Grisoniako garraio gintzak ibilbide sendoa zuen egina. Ez nolana hikoia, gainera. Gogoan hartu behar da Grisonia, Suitzako kantoirik zabalena bada ere, biztanle gutxien daukana dela, betidanik. Eskualdeak, 150 bat bailara ez ezik, 3000 metrotik gorako 500 bat tontor ere baditu. Horrek esan nahi du mendate, haitzarte eta troka ugari daudela bertan, bai eta goimendien arteko igarobide garrantzitsuak ere. Horietariko asko, historia aurrean eginak dira, arrokak landuz eta zulatuz. Erromatarrek, sarri legez, geroago bereganatu eta baliatu zituzten bideak dira horiek, arkeologia-indusketek argiro erakutsi dutenez. Halaber, XVIII. mende amaieratik aurrera, grisoniarrek ausardia handiz jokatu zuten, nola eta ekimen arriskutsuei lotuz, bertako azpiegiturak berritzea xede. Ingeniariek, amildegi pikoak gainditzeko nahiz Grisonian maiz izaten diren luiziak saihesteko, teknika-maila bikaineko eraikuntzak asmatu zituz-

ten, hala nola, zubiak, zubibideak, funikularrak eta antzekoak. Horrela erantzun zieten tokian tokiko beharrei.

Hala bada, Grisonian nortasun berebiziko bidegileak munduratu dira, baita irudizko adieran ere. Horien artean, Richard La Nicca ingeniaria, zeinek burdinbide baten egitasmoa aurkeztu zion kantoiko batzorde nagusiari, Suitza osoan lehenengo trenea ibiltzen hasi baino zortzi urte leheago. Hala eta guzti, La Niccaren burutazioak hain ziren haren garaikideenak baino aurreratuagoak, non urte asko igaro behar izan ziren Grisoniako trenaren ametsa bete zedin.

Horrezaz gain, nabarmendu beharra dago, autoei buruzko debekua indarrean egon zen bitartean, kantoian buru-belarri jardun zutela oraindik dabilen “Via Raetica” izeneko trenbide eredugarria osatzen. (“Via Raetica”, lurraldeak Antzinaroan izan zuen “Raetia” izenatik eratorria da.) Garai berean, Richard Coray, arotz eta zubigile antzetsua, egin zen ezaguna. Richard Corayk maisu-lan ikusgarriei eman zien buru berebiziko oholtza, zuraje eta zinbriak eraikiz paraje malkar haietan, hainbat baliabide berritzaileei esker.

Ostalaritzan, ordea, Johannes Badrutt, San Murezzango hotel baten jabea, izan zen Grisoniako beste aitzindarietako bat: lehenengo aldiz lortu zuen, duela mendi eta erdi bat baino gehiago, atzeritarrak, noiz eta neguan, Suitzara erakartzea. Izan ere, San Murezzan (bertako jatorrizko hizkuntzaz, alegia, *rumantschez*), edo Saint-Moritz izenaz ezagunago den tokia, gaurko negu-kiroletako gune famatua eta turismo-atsedenleku dotorea da. Saint Moritz, ur epelak bideratzeko Brontze Aroko egiturak dituen bainu-herria ere bada, eta Suitzan argindarrez hornitua izan zen lehena.

Hain zuzen, turismoaren eskutik heldu zen, azkenik, ibilgailu motorduneak baimentzeko azken bultzadeetako bat; irabazpide hori galzearen beldurrak eragin omen zion-eta herritarren iritzi-aldaketari. Aipatu bide estuko Via Raetica trenea, berriz, mundu-ondarearen zerrendan jaso zuen Unescok

2005ean. Egun, bidaiariak leize sakonen gainetik garraiatzen darrai. Aukera paregabea da Grisoniako bazter zoragarriak ezagutzeko.

Abangoardia, aurrerapenak, atzeratasuna... zer diren uler-
tzeko lagungarri zaizkigun hamaika zantzurekin egiten dugu
topo Grisonian, nonahi. Grisoniarrak, jatorriari dioten atxiki-
menduari esker, agian, ez dira beti prest egoten edozein be-
rrikuntza besterik gabe onartzeko. Jokabide hori oso aberas-
garri suertatu zaei, gogoeta berriei eta elkarrizketei atea zabal-
du dien heinean.

Alpeetako hizkera

Hain da zerua zoragarria Alpeetan, gailurrez gailur hegan egiten duten begientzat, non bertan bururatu baitzizaion H.B. Saussure ikerlari eta mendizaleari ortziaren urdintasuna neurtzea. Horrela, zianometroa sortu zuen duela bi mende, poz estetikoa zehaztasun zientifikoarekin uztartze aldera.

Hain dira, bestalde, Alpeetako gainak zuriak, non hizkuntzalariek zuritasun horretatik eratorri ohi baitute mendikate handiaren izena, beronek latinezko “*alb-*” (“zuri”) erroarekin zerikusirik duelakoan. Halere, “*Alb*” edo “*Alm*”, goimendietako bazkalekuak Alpeetako hizkeran duen izena da (hots, euskarazko “alha”), bertako hitz hori nondik ote datorren argi ez dagoen arren.

Hain ziren, izan ere, guri-guriak Alpeetako belardi musker behialako bizilagunen ikuspegitik, non ametsetako leku bihurtu baitzituzten larre heze haiek, bai eta edertasun amai-gabearen adierazgarritzat jo ere.

Nolanahi ere, esloveniar Alpeetako elezahar batek dioskunez, arretaz eta begiratuki ibili beharra dago goimendiko konutuotan. Horra hor, esaterako, haranetik mendian gora abiatutako bidari bat: zenbat eta gorago, hainbat eta azkarrago ari da igotzen, bat ere geldialdirik egin gabe, mendi tontor eguzkitzuen xarmak erakarrita. Alabaina, ustekabeen, inoiz ikusi gabeko alhapide miresgarri bat ikusi du goragune batean, elurra-
rekiko mugan. Larre gozo zabal horren erdi-erdian, basahuntz talde bat dago, bazkan.

Ikuskari berezia! Gainera, basahuntz zurien artean urrezko adakera distiratsua duen orkatz bat dago. Orkatza, bidariari so geratu zaio, geldi-geldi, zirkinik egin gabe. Zlatorog mitikoa da. Bidari arrotza, nahiz eta higitze arinak atzematen ohitua dagoen, oraingoan begiak itxi eta “beti” esan du bere artean. Begiak ireki dituenen ere, berdin mintzatu zaio barnea: “betiere”.

Une horretantxe, emakumezko ahots batzuek galzoriaz ohartorazi diote lilurak harrapatu duen bidariari. “Rojenice” izena duten giza babesle ikustezin mitiko horiek lainoa abiara zi dute jarraian, bidaria lehenbaitlehen herrira jaits dadin. Euri astuna hasi du ondoren, mendietan barrena nahiz bidaziaren bihotzean. Eta, dagoeneko, atzean utzi ditu belarra muxukatzen ari ziren basabereak, mendi mazela isil itzal tsuak, eta Triglav (“Hiru buru”) mendi nagusiaren hiru buru goibelduak...

Baina bidariak orkatza harrapatu nahi du, atzitu, beretu, hil. Eta leku berera itzuli da geroago, betiere hilezkortasunaren bila, herriko nesk batez maitemindu denean. Lortu egin du, azkenik, Zlatorog berriz topatzea eta zauritzea. Zlatorog ordea, bere odol tantetatik sortu berri diren liliak jan eta berehala indarberritu da. Jauzika egin dio ihes harrapatzaileari, beroni hilezkortasunak ere ihes egin dion bezalaxe.

Ehiztariak, alabaina, orpoz orpo jarraitu dio orkatzari, haitzez haitz, amildegiz amildegiz, Zlatorogek, haserre bizian, tenk egin duen arte. Jazarleak, berriz, Zlatorogen urrezko adarren gorritasunak itsutua, behera begiratu behar izan du orain. Bat-batean, azpian duen leizeaz jabetu eta, izuaren izuz, zulo beltzera amildu da.

“Zarrast, zarrast!”, xuxurlatu du segak Herioaren eskuetan. “Ebaki, ebaki! Belargiro dago-eta.” Dailua zalu doa dailua, taigabe higika, burututakoaren lepo-egile trebea da-eta.

Hain zen irmoa antzinako giza taldeek bizi ziren inguruarri zioten atxikimendua, non esku sartze oro kezka bide zuten. Haien ustean, beti zentzuz eta neurriz, taxuz eta begirunez

jokatu beharra zegoen, epe luzean ez naturari eta ez, ondorioz, beren buruari kalterik eragiteko. Ondo zekiten haiek nondik zetorzkien atsegina eta poza.

Hala bada, naturak bere burua elikatzen du eraldaketa biribilez; gizabanakoa, aldiz, bazterretik begira egoten da, naturaren hiltze eta berjaiotzearen gurpil horretatik noizbait –batek daki zergatik– urrundu eta kanpotartu izan balitz bezala.

Eta behinola bertara itzuli eta bere jatorriarekin bat egiteko eginahalak egiten bazituen ere, gaur, ostera, badirudi giza-kiak hilkortasunaren legea nonahi ezartzeko gogo duela, natura bera ere agortzeko temaz.

Milaka urte igaro dira Alpeetako esloveniar elezaharreko ehiztari hura desagertu zenetik. Geroztik, basapiztiek hamaika aldiz zapaldu eta bere egin dituzte haren oinatzak. Hamaika aldiz suntsitu ditu ere egun-argiak. Orobat egin dute mila bider dantza, ordutik hona, hitz jauzkariak. Hitzak ere oraindik ari zaizkigu keinuka eta aieruka, lehengo garai haietako zantzuen bila abiatu gaitezen, iraganeko hotsen bat, orduko oihartzun txiki bat, bederen, aurkitzeko. Alpeetako “al-”, adibidez, oro har, belarrarekin eta landareekin lotura duten hainbat hitzen hastapena da Europako hizkuntza batzuetan, baita euskaraz ere.

Era berean, euskal segalariak Alpeetako zelai ederretara bihurtu dira. Eta usadio zaharrari eutsiz, belarra segaz jotzen aritzen dira urtero, Alpeetako segalariekin lehian uda jaio berria ospatzeko, sega-txapelketen bidez; edota hazitakoa ebakiz, hasiera berriei bide emateko.

Alpeak liluragarriak dira, zalantzarik ez. Friederike Mayröcker poeta austriarraren olerki batek ere gogora ekartzen dizkigu:

“Orduan abuztua zen mendietan
eta arratsaldeak hotzak
baina gure gogoak erre egiten zuen

gauez izarrak ortzian
zenbatzen genituen artean
(...)
Malkoak begietan jesartzen ginen
gure bizitza laburregia delako”.

Laburra da gure bizitza. Halaber, aukera bikaina da irau-
korrago den horren aztarnei antzemateko.

Demagun, Madeira

Demagun, Madeira: izenak berak adierazten digunez, irlan egurra besterik ez zegoen portugaldarrek bertan lekukotzea erabaki zutenean; halako neurrian zen Madeira baso hutsa, non zazpi urte eman baitzuten heldu berriek luberriak egin nahian hedatu ziren lehen suteak hiltzen.

Irlan ez zen sekula inor bizi izan, XV. mendean portugaldarrak heldu arte. Landaretza oparokoa zen, baina bizileku gogorra, menditsua, malkarra zen. Portugaldarrek, bederen, ez zioten bertako inori gerrarik egin lurraldea beretzeko. Barnealdean, amildegiak, trokak eta haitzarteak ziren nagusi; itsasaldean, berriz, labar zorrotzak, ontziei babesgunerik eskaintzen ez zietenak.

Piztirik ez zegoen orduan, bakarrik hegaztiak. Baina, baita ere, zomorro asko, txorien lumajearen bidaiaturiko arrautzetatik sortuak. Gainerantzean, itsasoak ekarritako hondakinetan onik iritsiak ziren sugandilen ondorengoak. Bada, ez da harritzekoa portugaldarrak agertu artean, Madeiran inor bizitzen jartzera ausartu ez izana, Antzinateko feniziarrek irlaren berri bazuten arren.

Demagun, Madeira: egur hutsa, bai, portugaldarrek laster baso huts haietara eramandako bahituek hartu zutena; esklabuek, hots. Kanarietan eta Mauritania edo Gineako kostaldean ehizatu edota erosi ohi ziren bertako bizilagunez ari gara. Dena den, hura legearen arabera jokabidea zen, besteak

beste, Eliza Katolikoak baimendua, baldin eta esklabu eginda-koak fedegabeak baziren, behinik behin.

Hamaika gizonzkoak galdu zuten bizia, amildegietara erorita, harkaitzak zulatzen ari zirela. Izan ere, kolonoak bizi ahal izateko, bidezidor berriak eta tunel estuak urratu beharra zegoen. Batik bat, goi-mendietatik behera *levada* izeneko ubideak ziren beharrezkoak. Bestalde, are gutxiago ekartzen da gogora emakumezko esklabuen patua. Horiek sexurako eta lan ziztrin askotarako baliatzen zituzten portugaldarrek; hau da, zakilen erreinuko beste amildegi mota batean.

Hastapeneko lanak eta nekeak eskergak izan ziren. Gorago aipatu *levada* multzoa, esklabuei esker egina, nekazari-tza ahalbidetzeko asmatutako ureztatze-sarea da. Sareak, toki txikian, bizpahiru mila kilometroko luzera hartu zuen. Ubide horiek, Iparraldeko mendi garai euritsuetan ura bildu eta Hegoalde idorretaraino banatzen dute oraindik, hain zuzen, mailaz maila antolaturiko alor urrietara. Argi da geroagoko nekazarien bizimodua ere ez zela erraza izan. Horren lekukoak ditugu lagun mordoa bizi ohi zen Madeirako baserri ezin txikia-goak; bai eta zuribeltzeko argazki zaharretan ageri zaizkigun jauntxo kapeladunak. Bada, jauntxoak hamaketan etzanda joaten ziren lurra ikuskatzera, hamakaren muturrei morroi oinuts banak eusten zien bitartean. Madeirako aldatz pikoak ez ziren ibilgarriak ez zaldiz, ez gurdiz, ez autoz. Hamaka edo andak ziren garraio-bide bakarra eta erosoena, jakina, ugazabak oinez joateko prest ez zeudenez.

Iragana! Zein urrun eta zein gertu! 70ko hamarkadan, Europako eskualde txiroenetakoa zen Afrikako zatia den Madeira. Ordea, turismo-enpresa handiek uharte ederra hustiatzeari ekin ziotenetik, nabarmen igo omen da bizitza-maila. Alabaina, aski dugu turistaren ohiko ibiltokietatik irtetea, nekeak eta lanak agortu dituen bertakoen aurpegi zimurrez jabetzeko, ustekabeen; edo sorterriko ekonomiaren porrotak belauniko jarri dituen behargin inportatuei antzemateko, turismoko az-

piegitura berrietan, lanean. Autobideen eraikuntza, porlanezko zubi erraldoien ganean, aurrera doan bitartean, ez inorekiko ez naturarekiko gupidarik gabe, turistek esklabuen odolaz egindako *levada* horiek miresten dituzte, denbora-pasa.

Bada, turistek, beste edonon ere, Erdi Aroko gotorlekuetako presondegiak eta leotzak ikuskatzen dituzte, gustura, edota, esaterako, gerra-presoeak eraikitako gazteluak, Inkisizioaren tortura-gelak, Berpizkundeko zapaltzaileen jauregi dotoreak eta errege buruiritzien lorategiak. Horretan, inongo galderarik ez dute egiten, ez beren buruari, ez bidaiagidari berritsuari. Badirudi turistei erakusten zaiena *in illo tempore* mitikoan jazo zela, behinola, alegia; beste garai haietan gertatutakoa ez baita orainaldiko inperioekin inoiz lotzen. Agidanez, lehegarria galdu duen lehegailua edonoren esku utz daiteke.

Turistek ez ikusiarena egiteko duten ahalmenari zor ote zaio fenomeno hori, ala «hatzamar oroprogramatzaile» batek agintzen duenaz baino ez ohartzeko ezintasunari? Batek daki.

Egia da, ordea, hainbat tokitan oraindik erabiltzen den legebiltzarraren areto distiratsua ere egoten dela turistentzat erakusgai. Sekula ez, ostera, espetxeak eta kokaleku militarrek. Argi hotzago batek argitzen ditu denda-osteak, ezerk argitzekotan, nahiz eta horiexek erakutsi ahal izatea herri baten adierazlerik onena litzatekeen; hots, nor bizi den gizarteaz harro izateko arrazoia. Esan nahi baita, halako toki ilun zoritxarrekoak desagertzea: giza iragan lotsagarria guztiz iragan izana.

Turista otzan isilek, berriz, leku ikusgarri ospetsuetan saldoka barneratu ahala, Baltasar Gracián espainiar idazleak idatzitako "*El Criticón*"en kobazuloko jendearen antza hartzen dute:

«Horra hor, hutsaren haitzuloa. Ez asaldatu!», esan du Gizon Prestuak. «Hutsa, zergatik?», galdetu dio Andreniok. «Neuk, berriz, mende honetako ur-lasterra bertara itsasoratzen ari dela ikusten dut, munduaren uholdea, hiri jen-

detsuak, gorte handiak, erresuma osoak.» Eta Gizon Pres-
tuak: «Bada, ondo begira ezazu. Diozun guztiak barrura
sartu ondoren, haitzuloa huts-hutsik geratu da-eta (...) Ho-
riek, beraz, ezer ez ziren izan, ezer ez zuten egin, eta ezer ez
izatera heldu ziren»¹.

¹ Baltasar Gracián, *El Criticón*. Espasa Calpe. Madrid, 1943. 354 orr.

Ezer ez dakigu heldu berri den neguaz

Zer dakigu heldu berri den neguaz? Ibilera ezagunaz hurbildu zaigu eta adituek ez digute ezustekorik iragarri. Baina, hala ere, ezer gutxi dakigu heldu berri den neguaz. Baliteke ohiko hotza egitea, eta bakardadea. Bada, goiz bilduko gara etxera, jaki epelen artera, ezkutuko oinazea ahoan txikitzeko.

Dena den, zerbait badakigu neguaz. Esaterako, hotzaren beldur direla hainbat, hotzak erabaki ohi baitu askoren heriotza-auzia, non eta kale gorrian. Era berean, badakigu gure beldurraren beldur direla beste asko eta asko, gure beldur horrek –eta gure geldotasunak– haien heriotza-auzia erabaki ohi baitituzte, munduan zehar dauden gatazketan.

Beraz, etorkizuna ezagutzen zaila bada ere, aski dakigu heldu berri zaigun neguaz. Batez ere, hauxe dakigu ongi: ustekabeak edozein unetan egin dezakeela eztanda, itxura eta iragarpen guztien kontra.

“Zein den zorientsu– oraindik sorlekuan dagoena!”, zioen Nietzschek “Bakartia” izeneko bere olerkian, elurraren hurbiltasunari antzemanda:

“Zoro hori, zergatik joan zinen iheska mundura
negua atean zegoela?(...)
Zuk galdu duzuna galtzen duenak
sekula ez du atsedunik izango.”

Bidaro gaitza, bidaiariak ongi baitaki bere herriko erlojuek oraindik jarduten dutela, bera bertan ez dagoen arren. Oroitu ere, ondo oroitzen da bere herriko ezkilen hotsaz. Ordulariak, alabaina, besteentzat ari dira gaur jotzen. Izan ere, bestean odolak bide egiten jarraitu du, bidaiaria erbestean egon den bitartean. Haren odola, ordea, nekez doa orain aurrera, edonon egiten duelarik behaztopo.

“Ai ene herrimin hura!
Orduko lilurak aspaldi egin zidan huts!
Berdin zait, guztiz–
guztiz bakarrik non bizi (...)
Ez zait axola non moldatu behar
(ezta saiatu ere!)
Berdin zait non makurtu burua”

Hala aitortu zuen Marina Tsvietaieva errusiar idazleak erbestealdiaren hamabigarren urtean, bere baitatik arrotzen hasia, «Herrimina» izeneko poeman. Hala eta guzti, errusiar poetak zirrikitu bat utzi zuen zabalik, olerkiaren azken bertsootan:

“Ezer ez zait ardura,
den-dena zait berdin.
Ezustean zuhaixka bat
bidean agertu ezean:
alegia, otsalizarra...”

Otsalizarra errusiar herri-kantetan maiz aipatzen den zuhaixka da. Zelten tradizioaren arabera, bestalde, otsalizarrak negu ilunaren osteko pizkundea adierazten du. Otsalizarraren zitu gorriek zauriak sendatzen omen dituzte, baita jaten dituenari urte batez bizitza luzatu ere.

Alemaniatik atzerriratutako Heinrich Heinek, berriz, haritzondoa aukeratu zuen maitagai, «Belsazar» izeneko olerkian:

“Eder-ederra nuen aberria.
Gure haritza hain zen garaia

eta bioletak, ezti samurrak.
Amets hutsa izan zen dena”.

Horra hor, zuhaitz eta landareei lotutako irudi bizi eta sendoak, orainaldi hits eta zatarrak haraindi. Norberaren zaleztasun eta temaren adierazleak dira horiek, bai eta herri baten atxikimendu irmoarenak ere. Haritz eta otsalizarraren edertasunari zor zaion mirespenaz ari gara: lerdena bata, malgua beste. Hitz eta irudi horiek, haritz eta otsalizarraren bereizgarriak buruzko jakintza aintzat hartu eta helarazi digute, belaunaldiz belaunaldi.

Ildo beretik heldu zaigu gaurko Hesseko (Alemania) Iparraldean zegoen Thor jainkoari loturiko haritz zahar eta biziki maitatuaren berri, hots, “Donareiche” izeneko haritza. Ezagun denez, anglosaxoi jatorriko Bonifazio doneak, mila urte baino gehiago zeukan haritz hura botarazi zuen 723an, germaniarren kristautzea lanbidea hartuta zuelako. Zer zela-eta haritzaren botatzea? Hain zuzen, Bonifaziok bertakoen sinesmenen trufatzea zuen xede. Misiolari kristauak, gainera, lotsagabeko ausarkeriaz ekin zion gerra-ekintza hari, bertan bildutako herriarren aurrean, berauei erronka jo eta kristau jainkoaren nagusigoa erakutsi nahian. Halaxe gertatu bide zen: Thor, germaniarren jainkoa, haritzaren ebaketa galarazteko gai izan ez zenez, germaniarrak kristautasunera bihurtu ziren, beraien sinesmenen etsita. Hobe esanda: Bonifazio kristauaren indarkeriak etsiarazita.

Jakina, bi alderditako inork ez zuen sinestuko jainko bat, edo naturaren indar bat, giza kontuetan esku hartzera behartu daitekeenik; ez behintzat haga bat palanka gisa erabiltzen den bezain mekanikoki. Izan ere, Bonifaziok berak, germaniarren zuhaitz sakratua botarazi aurretik, aliatu armadunen babesaren segurtatu zuen, badaezpada. Bonifazioren lagunek, hots, frankoek, gotorleku bat indarkeriaz hartua zuten lehendik, haritza zegoen ingurua kontrolatu ahal izateko bertatik. Bonifa-

zio frankoen ikusmenean egon zen, haritza moztu bitartean. Horrela, frankoek babesa eman zioten kristautasunaren zabal-tzaile sutsuari.

Germaniarrek, alegia, jentil “sinesgogorrek”, ezin izan zio-ten ikuskizun negargarri hari aurre egin. Eta bihotzeko astin-duei eutsi behar izan zieten, zirkinik ere egin gabe. Haietariko batzuek, agian, une hartatxe erabakiko zuen ordurako ihes egindakoekin batzea. Gerra-garaia zen.

Gure Bonifazio santuak jokaldi makur bat gehitu zion egindako basakeriari: botatako harizkiak eliza bat eraikiarazi zuen, non eta haritz zaharra sortua zen muino gainean. Bonifa-ziok, antza, haritza leku berean utzi nahi izan zuen, berau “ber-gizarteratu” eta gero, hau da, haritzari hatsa xurgatu ostean.

Baina nork daki geroaren berri? Bonifazio bestelako er-lijio-zereginetan aritu zen ondorengo garaietan, toki hartatik urruti, harik eta hogeita hamar urteren buruan berriz “misio-lari-gerlari” abiatzea otu zitzaion arte. Germaniarren lurralde fedegabe haietara itzuli zen, laguntzaile batzuekin. Alabaina, oraingoan, heldu eta berehala, frasio talde batek eraso eta he-riotza eman zion Bonifaziori, ustekabean. Erasotzaileen ar-tean, haritzari buruzko “kristau irakaspen” hura gogoan zuten lekukoak egongo ziren, beharbada; edota apezpiku liskargilea kanpoan egon zen tarte luzean erbestetik itzultitako iheslariak.

Zer dakigu, hortaz, heldu berri den neguaz...? Nonahi daudela izotzeko balak, kazkabar zakarra eta ilunabarreko zu-ritasun urdinxka, bai eta ezusteak ere.

“Ziztuan eta karranka
doaz beleak hiri aldera:
laster egingo du elurra-
zein den zorigabea
sorlekurik ez duena!”.

Horrelaxe eman zion Nietzschek amaiera bakardadearen gaineko bere olerkiari.

“Ni ohiak”

Badaude bizitzaren muina osatzen duten gertakariak; edo badaude gertakari mingarriek osatutako garaiak, pisu guztia bereganatu dutenak.

Ez, gertaera horiek ez dira ezeren ardatza, ez baita, aurreantzean, ardatzarekiko inolako higidurarik egongo. Gelditasuna nagusi izango da, loak hartuko duelako denbora.

Aipatu garai horiek, ustekabean iritsi garen mendilepo baten antza dute, hain zuzen, sekula atzean utziko ez dugun mugarriarena. Oraingoan mendizaleak, gailurren batera abiatu beharrean, inorantz ez du joko. Bertan lotuko da, astindu batek hartuta. Hots guztiak bere mende dauzkan dei bakarra entzungo du eta adi-adi jarriko da, urruneko zaunkei: basa txakurrak. Haurride berriak!

Hortik aurrera, berdin zenbat urtez luzatuko bizialdia, mendizaleari ez zaio ezer esanguratsurik gertatuko. Laster automata kutsua itsatsiko zaio geroak bertan behera utzi duen horri. Arimak baino, haren gorputzak irudiko du hilezina.

Bazterrean geratze horrek, tankera bitxi-bitxia har dezake. Dickensek idatzi zuen azken eleberrian bikain adierazia dago hori, eta, era berean, muturreraino eramana. Nobelak *Itxa-ropen handiak* du izenburu. Senargaia ezkontzara agertu ez delako, andregaiaren etxeko ordulariek tenk egiten dute ordu zorigabe horretan, betiko. Mahai gainean dagoen ezteietako bazkaria, esaterako, saguen luzaroko bazka nazkagarri bihurtuko da. Etxeko leihoak ere dira aipatu gelditasunaren lekuko:

egun-argirik sar ez dadin itxita geratuko dira. Protagonistaren urte amaigabeetako biziera antzu eta hormen arteko zahartze hutsa besterik ez da izango.

Antzeko zerbait dugu Giuseppe Tomasi di Lampedusaren eleberri bakarraren amaieran: “Gatopardo” izengoitia duen protagonistaren hiru alabak etxean bizi dira, irten gabe, sainduen erlikiez inguraturik, loriazko gaztaroan hain maite izan zuten hautsez beteriko txakur diseekatua barne. Bizimodu hutsalaren eta geldotasun itogarriaren adierazpide dira hirurak, denborak berekin dakartzan gizarteko aldaketei bizkarra eman izanagatik.

Beraz, badaude mundu honetan “ni ohi” batzuk, beraz, obsidianazko kutxatilan giltzapeturik, iharturik, izozturik, iraganarekin kateztaturik bizi direnak.

Baina zergatik agortzen ote zaio, ezbeharrak izandakoari, oroimen lazgarrietatik askatzeko ahalmena? Zergatik tematzen ote da bere horretan, neurrigabe? Dickensen iritziz, jasan dugun galerari itsu-itsuki atxikitzea, hein batean, harrotasunari zor zaio. Izan ere, malgutasunik ez duenak bortxa egiten dio bere buruari, nola eta bizi den ingurutik isolatuz eta kale itsu batean sartuz, bere burua guztiz ahuldu arte.

Ildo beretik, beste urrats bat egiten du Vassili Grossman idazle errusiarrek *Bizia eta Patua* Sobiet Batasunean debekatu izan zen idazlan zoragarrian. Aipatu idazlanean, gizabana-koaren egoera ezezik, belaunaldi oso batena ere aztertzen du Grossmanek. Eta denboraren kontu horren harira hau idatzi zuen:

“Ez da gaitzagorik beren arotik kanpo bizi den ugazeme-alaben patua baino. (...) Aro bakoitzak, berak munduratutako umeak baino ez ditu maite-eta (...), ugazamek besteren umerik maite ez duten bezalaxe”¹.

Bestalde, “nire garaiak gure garaia izateari utzio dio”, kon-
turatu da Krimov, emazteak alde egin ondoren hartu duen na-

higabea inorekin partekatzeke gai ez den eleberriaren pertsonaieriko bat.

Bada, Grossmanen eleberriaren gai nagusia zera da: gerra, izumena eta atsekabeen ondorioz buruzgalka dabilen mundua. Gai hori, hamaika pasarte eta iruditzen agertzen zaigun aurkakoen txandakatze baten bidez adierazten du idazleak: egonkorra dena, mugitu egiten da; mugitzen ari denak, ostera, geldi beharko luke. Areago, Volga ibaiko urak berak, etengabe bonbardatzen ari diren lurraldea baino geldikorrago ematen du:

“Volgaz bestaldera so geratu eta ikusi zuen nola lurra gora eta behera egiten ari zela Stalingradetik zetorren argi nahasian; ordea, ontzia zihoan urak harlauza bat bezain geldi zirudien”².

Halaber, hildakoak bizirik daudenak baino biziago egon daitezke: behinola nahikoa izaten zen Stalinek eraikiarazitako Leninen Mausoleo barrura sartzea, Sobiet Batasunean komunismoa hilik zegoela ulertzeko. Nabaria zen harri beltzeko murrurrotz itsusi haietan herri oso bat baltsamatzeko asmoa zegoela. Zorigaiztoko toki hartan ez zegoen bizi-pozaren aztarnarik. Mausoleo ilun goibelaren erdian, aldiz, Leninen zurbiltasun zirrargarriak jatorrizko iraultza gogora ekartzen zien erabat etsita ez zeuden bisitariei.

Nola bizidunen hobia, hala hildakoena. Stalin ere, Leninen hilobian egon zen lurperatua zenbait urtez, harik eta Kruschevek, estalinismo historikoa atzean uzteko beharraz jabetuta, handik atera zuen arte.

Gauzak horrela, Vassili Grossmanek alferrik idatzi zion behin eta berriz, bizi zen artean, Kruschevi, *Bizia eta Patua* eleberria Sobiet Batasunean argitaratzeko baimena eman zezan. Eskerrak lagun batzuek, idazlea zendu zenean, eskuizkribua Sobiet Batasunetik ateratzea lortu zutela, izkutuan. Agintariak ongi ohartuak ziren eleberriaren indarrak, arrazoi osoz: Gross-

manek, nazismoaz eta estalinismoaz haratago, nagusikeria eta zurrunkeria salatu zituen bertan, hots, giza antolamenduaren erroetan egoten ohi den beldur suntsitzaile eta arbuigarria.

¹ Vasili Grossman, *Vida y destino*. Círculo de Lectores. Barcelona, 2007. 55 orr.

² Vasili Grossman, *Vida y destino... op.cit.* 35 orr.

Paradisua hutsean

Hizkuntzalariek berebiziko ahaleginak egin dituzte azken hamarkadaotan, munduan ezagutzen diren bostmila eta bostehun hizkuntza baino gehiago aztertu eta sailkatzeko. “Anabasa babiloniko” horri taxua emateko, hau da, mintzairak ahalik eta multzo handienetan biltzeko, senidetasunaren irizpideari jarraitu diote hizkuntzalariek, hizkuntza guztien balizko jatorri amankomun bakar baten ikuspegitik, betiere.

Zeregin horretan, Indiatik Mendebaldeko Europaraino hedatu ziren indoeuropar hizkuntzak izan ohi dira eredu, etorki bereko familia osatzen dutela baieztatu zenetik. Ildo beretik, adituek beste zenbait hizkuntza familia erraldoi mugarriztatu dituzte ere, hainbat desadostasun eta ezbai gorabehera.

Bada, gure garaiko ikerketa-korronte batek ondoko uste hau du abiapuntu: hizkuntzak oro hizkuntza bakar batetik eratorriak izan daitezkeela. Aipatu korronte horrek helburu jakin bat dauka: hizkuntza bakoitzak izan duen bilakaera adaxkaz adaxka irudikatzea, nola eta hizkuntza guztiei dagokien enbor bakar bat bilatuz. Ekimen ausarta da, izan ere, milioika mihien dantzan ez zoriabiatzeko berezko sena eskatzen duena.

Ezagun denez, giza taldeak aspaldi hasi ziren elkarrengandik urruntzen eta sakabanatzen; demagun, Afrika Ipar-Ekialdetik lur osora zabaltzeari ekin ziotenean. Duela ehun mila urtetik gora, arkeologiaren zein genetikaren orain arteko emaitzen arabera, behinik behin. Hipotesi hori frogatutzat ematen dute zientzilariek. Baina mintzoak harrezkero etengabe alda-

tzen aritu direnez, gaur zaila da, zinez, antzinako ezaugarriei antzeman eta senak emandakoa urratsez urrats egiaztatzen joatea.

Hala ere, ezin jakin dezakegu hizkeraren garapena hasiera-hasieratik kultura eta aro guztietan uste bezain azkarra izan den ala ez. Agian, hitzekiko atxikimendu estuagoa egongo zen aro luze batean. Baliteke, adibidez, hitzei ezer eraldatzeko debeku bat ezarri izana gizartearen baitan, tabu moduko bat, hitzek beraiek indar ezkutu bat zutelakoan; alegia, adurra.

Dakigunez, asabek nekearen nekez egin zituzten beste aurkikuntzek ere (sua, burdingintza, nekazaritza...), begirune berezi bat eragin ohi zieten ondorengoei. Gainera, gogoan izan behar dugu giza historiak berak ere astiro-astiro egin zuela bide hastapenetan.

Nolanahi ere, hortxe dihardute hizkuntza txiki batzuek, oraindik behar bezala ikertu ez badira ere, bilduriko datuen urritasuna dela-eta. Hari horretara, nahiko ilunak zaizkigu oraindik, esaterako, Papua-Ginea Berriko hizkuntza mordo korapilatsuak. Beste hizkuntza batzuei, ordea, “isolatua” izena eman zaie, inongo ahaidetik idoro ez zaielako, ez bizien, ez eta hilen artean ere. Halako “kide bakarreko sendiak” dozena eta erdi baino ez dira, guztira. European bat dago, hots, euskara. Baina hizkuntza horietako hiztunak beti basabazterretan, irla urrunetan, goi-mendietan eta, oro har, ezin iritsizko toki zailetan aurkitzen diren bitartean, euskaldunak, aldiz, itsasoz nahiz lehorrez ondo loturik bizi izan dira, betidanik auzoekiko harremanetan.

Bestalde, aski ezaguna da herri zaharrek maiz “gizakiak” deitzen diotela beren buruari, seguruenik behin batean heldu ziren lekuetan lehenak izango zirelako. “Euskaldun” hitzak ez du, haatik, “gizakia” esan nahi, “euskaraz egiten duena” baizik. Irudimenari jostatzeko bide eman nahi izanez gero, “euskara” “esku era” ekartzen digu gogora. Jakina, eskua antze edo trebetasunaren ikurra izaten da, giza izaeraren funtsezko funtsezko

bereizgarri bat, mintzamenaz batera. Hain zuzen, bai eskua eta bai mintzatzeko ahalmena, gizakiak animalienengatik bereizten dituen ezaugarriak dira. Hamaika haizpe eta leize zulotan margotutako eskuak horren lekuko eta adierazpide dira. Hala esan nahi dute, agian, eskuek: “Gizakiak gara, eledunak berriz, esku era dugu...”

Era berean, “basokoak” deitzen ohi zaie toki bateko jatorrizko biztanleei, berauek, azken batez, jende desberdina, bitxia eta gaizki ikusia izaten delako, behinik behin, bertara geroago heldu zirenen iritziz. Hortxe ditugu, besteak beste, gizajaleztat jotzen diren Nepalgo kusunda etniako kide gaitzeziak, Filipinetako aeta izenekoak (“basoko mamu beltzak”, auzokideen eleetan), mespretxu latza jasan duten Japoniako ainuak, eta abar. Euskaldunek, ordea, bidelapur eta lizun fama izan zuten Erdi Aroan. XX. mendean, berriz, bortizkeria leporatu zitzairen. Hortaz, herri zahar horiek, sarri hizpide izan arren, sekula ez dira hizpidean egoten. Beharbada, “hondar herri” zaharrek gogora ekartzen diete herri heldu berriagoei, berauek noizbait indarkeriaz azpiratu eta zokoratu zituztela. Errudun-ustea ote dago tartean?

Indiako Andaman uhartediko egoera da harrigarriena. Bertakoen hizkuntza-familia aberats ñimiñoak seihun bat hiztun besterik ez du, Sentinel uharteko hizkuntza tartean. Sentinelekoek aldameneko irlakoei ulergaitza zaien zerbait hitz egiten dute, antza. Dena den, hizkuntzaren kontu hori argitzeko ez dago haiekin harremanetan jartzerik: duela hirurogei bat urte arku erabili izan dute, huts eman gabe, gerturatu diren kanpotar guztiak uxatzeko. Hain zuzen, sorospenlanetan zebilen helikopteroari botatako geziei esker jakin zen Sentineleko bizilagun guztiz ezezagunak onik irten zirela 2004ko tsunamiren ondoren.

Edonola ere, turismoak ekarri dizkie desagertzeaz dauden Andaman uhartedikoei tsunamik baino kalte handiagoak, gaixotasun anitz eta bizimodua ateratzeko ezinbesteko duten

lurraldearen murriztea barne. *“Paradies für nix”* (“Paradisua hutsean”), da, esaterako, Alemaniako bidaia-agentzia baten errimadun leloa, Andamango hondartzetara bidaia merkeak saltzeko. Argi denez, oihan sarritik irten nahi ez duten Sentinel irlako azken bizilagun hurbilezinak, gutxi izanda ere, ez dira paradisu merkeen alde egiten ari, baizik eta burujabetasunaren eta bizitzaren alde.

Sigi-saga Patagonian

Sigi-saga, baina ziztu bizian, ihes egin zioten Magallanesi berak «Patagonia» izenaz bataiatu zuen eskualde zabal eta ezezaguneko bi emakumek, espainaratzeko asmoz harrapatzen saiatu zenean. «Eme-chiztari» bihurtutako espedizioburuak behin eta berriz huts egin zuen tiroa, bertakoen sigi-saga alde egiteko teknikarengatik. Horrelaxe galdu zuen Magallanesek hasieran otzan-otzan hurbildu zitzaion ehizaki xaloa. Triki-mailuak erabiliz ontziratu zituen bi gizonetzko, berriz, laster gaixotu eta hil ziren. Esku hutsik geratu zen, hortaz, Magallanes. Izan ere, Espainiako Erregeak bi giza bikote eramateko agindua eman zion itsasgizonari, bidaian aurkitu herrien lagin edo erakuskari gisa. Horra hor, hiru mende geroago giza zoologiko eta zirkoetan sekulako arrakastaz European antolatu ziren erakustaldi lotsagarrien aurrekari bat; hots, gure garaian herri asko ogibidez exotikoak izatera bultzatu dituen gizaki «basati» eta «primitiboekiko» *voyeurismoaren* aurrekaria ere bai.

Sigi-saga jarraitu zuen Magallanesek, bide liskartsuetan barrena, munduari bira ematea xede. Gorago aipatu pasadizotik hilabete batzuetara, berriz, gorabehera larri eta neke gaitzen ostean, Magallanesek bere izena daraman itsasartearen idoro zuen, bai eta, besteak beste, Filipina irlak ere. Azkenik, bidaldiaren helburua bete egingo zela zirudienean, uharte ñimiño bateko biztanle biluzi «atzeratuek» hil zuten Magallanes, ustekabean. Espainiako Erregearen “handitasuna”, ar-

mak baliatuz, bertakoei erakusteko nahian abiatua bazen ere, Magallanesek ez zuen, nonbait, Mactango (Cebu) etsai haien “txikitasuna” neurtzen jakin.

Sigi-saga egin zuen aurrera Patagoniako lurraldeak ere bere ibilbidean. Hain zuzen, Rio Negro itsasadarreko Viedma izan zen europarrek bertan sortu zuten lehen hiria. Salestar abade batek utzi digu Viedmako lehen itsasargiaren bedeinkatzearen berri zorionsua, 1887koa:

“Isiltasunik bilduenean Ozeano Atlantikoari so, itsasargiaren dorrea beraien besoez eraikia zuten indiar presoek begiradapean, tiro-jasa burrunbariez agurtzeko prest zegoen artilleria hurbil genuelarik, Goi-goikoari eskainitako ongintzako eraikin hura, basamortuko zibilazioaren aitzindaria(...)”¹.

Bada, berriemaileak «basamortua» dio, Patagonia huts-hutsik zegoelako, «sarkin» haien iritziz; hots, jenderik gabe. Inor ez zen bertan bizi, bertakoak izan ezik... *Quantité négligeable!* Hortaz, lurralde hartan milaka urte zeraman biztanleriaren egitekoa ongi zehaztuta ageri zaigu oraingoan: agerritik kentzea, esan nahi baita, desagertzea; eta bitartean, lan zitalenak egitea, betiere lur-lapur kristauen mendean.

Sigi-saga eta lehiaka joan omen ziren Viedma hiriko agintariak, itsasargiaren bedeinkapena eta gero, ongi bazkalduta, zaldiz nahiz zalgurdiz, bide kaskarretan zehar, nora eta hiriko lehen udal liburutegia zabaltzera, jai-girorik alaienean. Hala diosku apaiz kronikagileak.

Izan ere, liburutegian, besteak beste, militarrek suntsitzen ari ziren herri zahar «bitxiei» buruzko ikerketa antropologiko hasi berriak egongo ziren laster eskuragai. Kulturaren beharra zegoen! Baita «bihurrikatze» ideologiko anitz ere izan ziren beharrezkoak, Frantziako Iraultzako giza eskubideen aitorenpenaren ondoren, kolonizatze gupidagabe hura zuritu ahal izateko. Eta, batez ere, zientzia eta teknika ziren behar-beharrezkoak,

naturaren ustiapenari inongo oztopo eta mugarik gabe ekiteko. Hala bada, ingurunea bere horretan uzteko joeragatik jotzen zituzten aberasteari emandako kolonizatzaileek Patagoniako bizilagun ibiltariak gaitzesgarri, «ez gizaki» eta hutsaltzat.

Garai haiek hots handikoak izan ziren. Odoltsuak ere bai: Basamortuko Kanpainaren helburua ez baitzen Patagoniako jatorrizko jendearen hala-holako azpiratzea, baizik eta, hitzez hitz: «arraza antzu bat behin betiko desagerraraztea», kanpainaren sustatzaileek argi eta garbi adierazi zuten. Esan bezala, hura «arraza antzu bat» zen kolono zurien ikuspegitik, berauen zentzuan garatzeko senik edo gogorik ez zeukalako.

Sigi-saga joan da, beraz, Patagoniaren ildo gatazkatsua zuriak bertara heldu zirenez geroztik. Zorionez, bertakoen ondorengoak ez dira oraindik erabat galdu. Horren lekukoa da, esaterako, aipatu sarraski-kanpainaren azken txanpan eragile nagusia izan zen Roca jeneral argentinarren giza irudi handi bat, zaldi gainean, Bariloche hiriko enparantzan. Zutik dirau, baina nahiko desitxuratua dago, pintura gorriari esker. Zutoinean, hitz bat, eskuz: «hiltzaile».

Zuzen-zuzen joan zen zerura, aldiz, Chimpayko (Rio Negro) Ceferino Namurcurá. Eliza Katolikoak 2007an dohatsu aitortu zuen lehen mapuche zorigabea, borrokan garaitutako buruzagi baten semea zen. Haurtzaroan etxekoengandik indarrez banandu eta Buenos Aires hiriburura bidali zuten, salestarekin “zibilizatu” zedin. 1905ean hil zen, mirariren bat edo beste egin ondoren, hemezortzi urte baino ez zuelarik, europarrek Ameriketara hedatutako hetika gaitxotasunak jota.

Edonola ere, iragan hurbilaz ahaztu ez diren maputxeek badakite, ongi jakin ere, kapilau kristautzaile haiek eta Roca jeneralaren gudaosteek tren berean egin zutela Patagoniarako bidaia. Orobat, ongi dakite «basamortua» deituriko hura, arbasoen bizilekua besterik ez zela, alegia, gaur ere zaindu beharreko toki eder eta emankorra.

¹ Juan José Kopp, “El faro de la barra del Río Negro. Su fundación”. 1887.
Internet Archive.) 9 orr.

Venezia, Kolkata, Disney

Gaurko Veneziaiek Calcuta jendetsua ekartzen digu gogorra; dena den, zuzenagoa da bengalerazko “Kolkata” izena erabiltzea, garai bateko Calcutaren ordeiz. Gainera, gure belarriek “Golgota” edo antzeko hots bat sumatzen dute hor, hots, kalbarioa. Izan ere, kalbario-hiria da Kolkata, kale gorrian dauden gizakume askorentzat.

Venezia hiriaz ari garela, berriz, “gustuko mendian aldaparik ez” esan behar dugu, zeren Venezia, duen edertasun berezia eta guzti, Golgota eta gainbeheraren omenezko Disneyland baten arteko zerbeit bihurtu baita: izerdi, neke eta itobehararren tokia, gerturatzen diren turista gehientzat.

Horren lekuko dira mukuru beterik doazen *vaporetto* zarrak, kanaletako ur kirastuak, tarteka Ganges ibaikoak bezain uherrak –Gangakoak, hobe–, jendez gainezka dauden kale ibilgaitzak, ordu luzeetako ilarek eragindako zorabioak eta arnasestuak, zutik hartu beharreko kaskarrak eta abar.

Horra hor, Venezia, oinak babez josirik dabilen gainpopulazio alderraiarentzako hiri txundigarria. Bada, Venezia giza *pot-pourri* erraldoia da, ingeles batua nagusitu den Babel garaitua. *Melting-pot* delakoa ere izan liteke, agian. Baina, egia esan, Venezia ez da kultura desberdinen arragoa, nor bere bidaia-agentziako taldean ibili ohi delako, ingurukoekin nahastu gabe. Aipatu *melting-pot* horretan bigutzen, galdtzen eta urtzen den bakarra, gizena da, gantza, mamia; Veneziaara etortzen garen gizostek ez baikara izaten, ez, Kolkatoak be-

zain argalak, kontrakoa baizik. Halere, gu ere gose gara, eta maiz bidaia-gose prefabrikatu batengatik heldu gara honaino.

Nabarmentzekoa da, bestalde, Veneziako biztanleria, hau da, aintzira handiko uharte-sarean bizi dena, erdira jaitsi dela azken hiruzpalau hamarkadotan. Gaur, 60000 bizilagunek baino ez dute bizilekua bertan. Urtero Veneziara hurbiltzen direnen kopurua, ordea, 22 milio baino gehiagokoa izaten da. Bisitariok, hain zuzen, hiriaren erdialdeko gune ikusgarri ospetsuenetan pilatzen dira, egonarri handiko erromes parrasta baten modura. Hauek Venezia monumentalaren diru-hornitzaile hutsen mailara beheratuak izaten dira, arazorik gabe.

Diotenez, Walt Disneyk ondoko hau izan zuen buruhauste edo kezkabide nagusi, Disneylandia eraiki nahi izan zuenean: nola eman Disneylandiako pizti bizigabeei, alegia, robotei, egiazko animalien itxura osoa. Ordea, egun, hainbat urteren buruan bizidunak erabat hezita eta estandarizatuta ditugun honetan, alderantzizkoa egiten zaigu irudikatzen zaila: automata tankerako ibilitari moldaerrazak gizaki burujabeak ere badirela sinestea.

Antza, programatzaileen taldetzar batek programatu du turismo gogorraren makineria astun hori. Edonola ere, aspal-diko kontuak dira hauek guztiak, dagoeneko inori zirrarak eragiten ez diotenak. Ia-ia denontzat doaz esan gabe. Turismoarena, munduan diren bidegabekeria eta pobrezia bezain arrunta da, zentzugabea eta egunerokoa, besterik ez.

“Oi Ama Ganga..., zure bidez zeruratzen gara... desager bedi ene gorputza, zure ur bazterretan bizi ondoren, zure ur garbietatik edan eta gero...”. Ramayana, sanskritoko epopeiko bertsoak dira horiek. Eta bi mila urte baino gehiago dute.

Ur sakratuak kutsatu egin dira bitartean. Ur-jainkosari ere moteldu bide zaio bere burua aldiro-aldiro garbitzeko eta indarberritzeko duen ahalmen miresgarria.

Baina lasai egon gaitezen. Uxatu ditzagun mamu guztiak, mekanikoak barne. Hobe dugu baikorrak izatea. Hobe dugu,

esaterako, Hannah Arendt pentsalariarekin bat egitea eta sinestea, jaioberri bakoitza hasiera berri bat dela eta, horrexe-gatik, ez dagoela gizakiak erabat moldatu eta mututzerik; hari horretara, jaioberri bakoitza itxaropen politiko bat ere badela ahaztu gabe, Hannah Arendten esanetan. Alabaina, belaunaldiz belaunaldi zoologiko barruan sortu eta hazitako horiek, ez al dute askatasunarekin amets egiteko gaitasuna galtzen, ezari-ezarian, naturatik urruntzeaz batera?

Gainerakoan, veneziarrak abegitsuak dira, jatorrak, zabalak. Aski da ezertaz jabetzea eragozten digun zurrunbilotik pixka bat urruntzea, geratzen diren veneziar urri horien artean poza hartzeko. Edonola ere, bertako gehienak bizi diren auzuneetara iritsi aurretik, *no man's land* edo linbo bezalako bat zeharkatu beharko dugu, hots, ez ostatu ez inoren egonleku ez diren bertan behera utzitako eraikinen ingurunea igaro beharko dugu. Are hunkigarriagoa da ingurua, gauez urez baizik hurbiltzerik ez duten etxe ilunen aldera begira jarriz gero. Argiteriarik gabeko ubideetan barrena ez dugu ikusiko argi bakar bat leihoetan piztuta. Eta irudimenak, ezustean, mila ezlekutara egingo digu alde, itzal beldurgarrien atzetik.

Tarte bakarti hori atzean utzi eta bidean aurrera egin ahal, berriz, bizia dagoela sumatuko dugu: han-hemenka, arropa koloretsuak ageri dira, etxe-aurrealde batetik bestera paratutako soketatik zintzilik.

Orain, antzinako saltoki eta tabernekin egingo dugu topo. Leku zaharkituak dira berauek, gozoak, xumeak. Ohartuko gara zein atsegina den ez autorik ez gizaldrarik ibiltzea bertan. Auzotarrek, ur hegitik ur hegira, bertako hizkeraz ari dira elkarri agur beroa egten, umeak kale erdian jolasean ari direlarik. Bat edo beste ontzian dabil, astiro, kanaletan gora eta behera. Beraz, hori herri giroa da, ez Disneylandia, ez Kolkata, ez Babel, ez Golgotakoa.

Veneziarren bizimodu horren geroa? Batek daki. Venezia-rrek filosofo idazle bat hautatu zuten alkate, birritan, 1993

eta 2005ean: Massimo Cacciari. Besteak beste, pentsamendu politikoaren alorreko liburu askoren egilea da, itzultzailea, editorea, eta “Politika izateko arrazoia askatasuna baino ez da” lelopean ematen den “Hannah Arendt Saria” izenekoaren irabazlea.

Hala bada, salba ditzagun veneziarrak, etorkizuneko Venezia ez dadila izan automatentzako eszenatoki hutsa; veneziarrak hiriaren haragizko burmuina eta bihotza dira-eta.

Argiaren Haranean

Eztei aurreko gaua heldu zen eta senargaiak huts egindako gonbidatuen bila joatea erabaki zuen, behin batean, Alpeetako Vrin herrixkan. Ilunpetan eliza aurretik igarotzean, berriz, senargaiak burezur batekin egin zuen behaztopo, ustekabea, eta beronek hala esan omen zion, ausarkeriaz senargaiari: “Zatoz nirekin!”. Hortaz, elkarrekin abiatu dira bi bidezkoak. Eta hara non kandela-argiak irten zaizkien bidera. Horietariko batzuk ahitzeko zorian daude, besteak, aldiz, indar handiz ari dira erretzen, oraindik; beste hainbat, alabaina, piztu berriak dira. “Nirea zein da?”, galdetu du ezkongaiak. Eta bereari erretzeko ezer gutxi geratzen zaiola ikusi duenean, galdu egin du konortea. Senera etorri eta berehala etxera itzuli da senargaia, gertatutakoa amets hutsa izan delakoan. Baina sorterrian ez da, dagoeneko, bera ezagutzen duen inor bizi.

Elezahar *rumantsch* horren arabera, senargaiak lauogei urteko bidaldia egin omen zuen eztei aurreko gau hartan, nola eta munduen artean burua galduz lehendabizi, eta berriro aurkituz, ondoren. Zalantzarik gabe, “lauogei” delako horrek (zortzi bider hamar, hamartar sisteman) “zortzi” zenbakiari doakion magia-kutsua du, adurra. Halaber, mugagabetasuna adierazten du, euskarazko “hamaika” zenbakiak bezalaxe.

Antzeko zerbait jazo omen zitzaion Leireko gure Virila abadeari: arratsalde batean, urretxindor baten deiak erakarrita, basoan barneratu eta bizpahiru mende geroago bihurtu

zen abadetxera. Agidanez, gure ohiko bizi-baldintzen langaren hauste bat. Horixe da, erlatibitatearen teoriaren ikuspegitik, argiaren abiadura hartuz gero berriro lurreratzean edozein bidaiariri gertatuko litzaiokeena.

Izan ere, Vrin herrixka Suitzako Val Lumnezia edo “Argiaren Haran” distiratsuko azkena dugu. Mila bostehun metrotan dago, Alpetako alhapide oparoek inguratua. Ia egun oro, argitasun zoragarri bat jabetzen da bailara zuri zabal luze horretaz, eguzkia hiru mila metrotik gora diren gailurren ostean sortu bezain laster, berdin neguko elur lodiak dena azpian hartu duenean. Oskarbi egoten da bertan, gehienetan; lainorik, ostera, oso bakanetan.

Bestalde, Vringo eliza zurixkak eraikin bitxi bat du erantsia. Eraikin txiki hori hezurtegia da, burezurrek lerro-lerro osatutako erlaitza eta guzti. Ondoan dagoen belardian, berriz, hilarri xume batzuk agertzen dute burua. Ez da hau, halere, leku goibela.

Ulegarria da Vringo bizilagunek, nola edo hala, hildakoak lagun izatea, eskualdeak oso biztanle gutxi daukala go-goan hartuta; areago antzinako garaietan, ezkontza-egun edota ospakizun eta une berezien kariatara. Ez da ere harritzekoa, Gion Caminada bertako semeak –Suitzan ezezik atzerrian ere ospetsua den arkitektoak– bere izen ona herriko eliza alboan zur zuriaz eraiki zuen “Stiva da morts” (“Hildakoen gela”) beilatokiari zor izatea. Bada, Gion Caminadaren aipatu eraikuntza, bizitzaren alderdi guztiak barne hartzen dituen horietakoa dugu: tokian tokiko bizilagunen egoera eta premiak aintzat hartzen ditu, arkitektoak arazo, helburu eta balio orokorrak behin ongi aztertu eta gero.

Vrin bera dugu, bestalde, horren adibide. Herria kinka larrian zegoen, husten, agortzen, hiltzen ari zelako. Orduan, Gion Caminada etxegileak abiapuntu hartu zuen herriari irtenbide bidezko bat bilatzea, auzolanean. Xedea ondoko hau zen: herrikoek sorlekutik alde egin beharrik ez izatea, lan bila.

Beraz, baserritarren nahiz abeltzainen ogibidea kolokan den garaiotan, Gion Caminada bide berriak urratzen hasi da, beste herritarrekin batera, jatorrizko nortasunari uko egin gabe, betiere.

Gion Caminada arkitektoaren iritziz, etxegintzak bitartekoak eskaini behar ditu, gizartearen arlo desberdinak bateratuz eta, azken batez, jendearen artean etorkizunaren aldeko borroka sustatuz.

“Turismoguneak hedatzerakoan, irabazkina da azti-hitza, eta inor ez da epe luzeko ongizateaz ardurutzen”, dio Gion Caminadak. Esaterako, ingurumena hondatzen eta txikitzen duten eski-oporretako guneak itsu-mustuan bultzatzen diren bitartean, beste era bateko aukeren garatzeari muzin egiten zaio.

Ordea, berrehun eta berrogeita hamar bat bizilagun geratzen diren Vrin herrian, besteak beste, lantegi txikiak eraiki dira azkeneko urteotan, kirol eta kultur aretoak sortu, azpiegitura egokiak osatu, herritarren arteko harreman-sareak sendotu..., baita galzorian den *erromantxe* hizkuntzaren erabilera indartu ere. Gauzak horrela, berezko balioari eutsi diote oho-lezko lehengo bizilekuek zein behitegi eta borda zaharrek. Ez dira ez bertan behera erori, ez turistentzako museo bizigabe bihurtu: bertakoeak, hain zuzen, erabilgarritasunetik eratorri dituzte edertasuna eta gaurkotasuna.

Arkitektura ikasi aurretik arotza izan zen Caminada. Haren sortze-lanak atseginak bezain soilak ditugu. Ez daukate begietan min egiten digun ezer, ez ertz zorrotz urratzailerik, ez erpin ebakitzaileak. Argitsuak, bereziak eta berritzaileak ere badira, Vrin herriaren irudiaren orekari eta giroari eustez gainera.

“Asmo bat dut hurrengo urteotarako: desberdintasuna nabarmentzea. Hau da, lekuen arteko desberdintasunak erakustea. Desberdintasunak zuzpertzteak, toki bakoitzeko bes-

telako ezaugarriak nabarmentzea esan nahi du. Hori erai-kuntza bat izan liteke, nahiz gai bat, nahiz egitura bat, hots. Egitasmoa ez da, dena den, desberdintasuna bera, bertatik ateratzen den gainbalioa baizik¹.

Badirudi Suitzako Vrin herrian, hildakoek eta biziak, berriz ere, bat egin dutela, merkatuaren ibilera zentzugabeak herriaren bizibide anitzak irentsi eta berdindu ez ditzan. Eta, apurka-apurka, Vringo bizilagunak eredu bilakatzen ari dira, elkarrekin ekin dioten berebiziko bidaiari esker.

¹ Gion A. Caminada, *Cul zuffel e l'aura dado*. Quart Verlag, Luzern, 2005. 180 orr.

OROITZAPENAK

BILDUMA

1. Anton Jauregizuria: *Tiempos de insurgencia*, 2006.
2. Joseba Felix Tobar: *Amerindiar erresebetako ondoezak Annie Maeren izpirituan (I)*, 2008.
3. Joseba Felix Tobar: *Amerindiar erresebetako ondoezak Annie Maeren izpirituan (II)*, 2008.
4. Karmelo Ayesta: *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia*, 2014.
5. Mikel Arginarena: *Neronek bizi izandakoa*, 2014.
6. Elena Martinez Rubio: *Bidaia filosofikoak*, 2015.